

XX. mendeko Zuzenbide amerikarra*

Lawrence M. FRIEDMAN



Chicagon (EEBB) 1930ean jaioa, ezkontuta dago eta bi seme-alabaren aita da. Hainbat unibertsitatetan aritu da Zuzenbidea ikasten (Chicagon, New Yorke, Suedian eta Italian, besteak beste), eta, gerora, baita irakasle gonbidatu bezala ere. Erakunde juridiko askotako ohorezko kidea da, sari ugari jaso ditu egindako ikerketengatik (*American Bar Foundation, 2001 Fellows Research Award, Harry Kalven Prize, James Willard Hurst Prize*, etab.), eta kontaezin liburu eta artikulu argitaratu ditu.

Zentrua eta periferia: Federalismoa XX. mendean

Gutxienez handizalea izango litzateke XX. mendeko Zuzenbidea orrialde gutxi batzuetan aztertu nahi izatea. Hasteko, esan beharra dago lerro hauek idaztean laurogei urtetik gora dauzkala XX. mendeko historiak. Bigarrenik, jende guztiak ahobatez onartzen duela XX. mendean oso aldaketa sozial gogoangarriak izan direla eta, beraz, legediak izugarri aldatu direla. Hirugarrenik, oso zaila dela albo batean jarri eta norberaren garaia aztertzeari ekitea. Historialariek urte batzuk behar izaten dituzte perspektiba bat hartzeko; akordio moduko batera iristen dira, eta errazagoa egiten zaie “epealdi” bat aztertzea, nahiz eta egia ez-osoetan, ispilu distortsionatueta, ikuspegieta eta oroimen txarrean oinarritu.

Aipaturiko hiru arrazoi –edo aitzakia– horiengatik, ez naiz Zuzenbide amerikarrak XX. mendean izan duen bilakaera azaltzen hasiko, eta ezta Zuzenbide zaharrak izan dituen aldaketak ere. Horren orde, Zuzenbideak XX. mendean zehar izan duen bilakaeraren laburpen bat egingo dut sarrera honetan, eta, hitz bitan, prozesu horrek daukan esanahia azalduko dut, hots, gaur egungo Zuzenbide amerikarra aurrez zegoenaren jarraipen edo aplikazio hutsa besterik ez da, ala iraganarekiko eten garbi bat gertatu da?

Aski ezagunak dira mende honetako gertakizun politiko eta sozial nagusiak. Argi dago XX. mendean Estatu Batuak munduko botere nagusia bilakatu direla. Mendearen hasieran, itsasoetako inperio txiki bat besterik ez zen. Paper erabakigarria jokatu zuen bi Mundu Gerretan, eta, bigarrena amaitu zenerako, munduko Estaturik aberats eta indartsuena zen, inolako zalantzarik gabe. Denboraldi batez, bomba atomikoa zeukan Estatu bakarra izan zen gainera. Eta teknologiari esker gizakia ilargiraino eramatea lortu duen Estatu bakarra da oraingoz (1985). Baina Estatu Batuak ez dira existitzen den superbotere bakarra; hartu du ipurdikorik ere, Vietnamentan adibidez. Hala ere, mendebaldeko Estaturik boteretsuena da *oraingoz*.

Barrura begiratu gero, mende hau botere zentral eta nazionalaren aroa izan da. Estatuaren indar erlatiboa txikitzen joan da, eta Gobernu federala, berriz, neurri ikaragarriak hartzen. Egonezin sozialak, bi Mundu Gerrek,

Zaila da XX. mendeko Zuzenbidearen garapena laburbiltzea

Estatu Batuen boterea

*. FRIEDMAN, Lawrence M. “American Law in the 20th Century”. In: *A History of American Law, 2. ed.*, © Yale University Press, 1985. Itzultzailea: Koro Garmendia.

Gerra Hotzak, depresio handi batek eta iraultza teknologikoak elikatu egin zuten Zesar federala. Munduko Zesarra ez zebilen urrunegi. Boterearen onuradun nagusia ez zen Kongresu nazionala, ezta Auzitegi Gorena ere, presidentea baizik, eta, oro har, Botere Exekutiboa. Presidenteen iritzian, presidente karguan dagoena munduko pertsonarik garrantzitsu eta boteretsuena da. Hala sentitu ziren Theodore Roosevelt eta Woodrow Wilson. Franklin Roosevelt lorian sentitu zen presidente izanik. Harding eta Coolidge, beren zereginari buruz kontzepzio txikia zuten gizon txikiak izaki, okertu egin ziren. Egon daiteke presidente ahulik, baina ez Presidentzia ahulik.

Mende honetan izandako gertakari garrantzitsu guztiak Gobernu indartzeko jazo direla dirudi. Alkoholaren gaineko debeku nazionalak berak ere –nolabait hiltzorian zegoen agindu baten azken aukera zen “esperimentu nobleak” (1919-1933)– federalismoaren erraldoitasuna sustatu baino ez zuen egin. Arlo federalean salbu, debekuak ez zeukan arrakasta lortzeko inolako aukerarik. Estatuak, indibidualki, ez ziren alkoholaren zorigaitzarekin bukatzeko gauza, eta saiatu ere ezin zuten egin, trenbideak kontrolatzeko, *trust*-en aurkako legeak onartzeko, elikagaien kalitatea hobetzeko edota armada bat sortzeko gai ez ziren bezalaxe. Debekuak ez zuen jendeak edateari uzterik lortu, nahi zuenak edaten jarraitu zuelako. Orokorrean hartuta, porrot garesti bat izan zen, baina izugarritzko aldaketak eragin zituen Zuzenbide Penalean. Debekuen ondorioz, kartzela federalak bete egin ziren, eta auzitegi federalak ataskatu. Zuzenbide Penala, XIX. mendean, ezin lokalagoa zen. Lehenik eta behin hiri eta herrien esku zegoen, eta bigarrenik Estatuaren esku, baina Gobernu federalak apenas zeukan eskuduntzarik. 1890era arte, Gobernu federalak ez zuen presondegi bakar bat ere izan. Zeuden preso federal apurra Estatuetakako presondegietan sartzen ziren, eta Gobernu nazionalak ordaintzen zituen beren egonaldiak. Baina debekua altxa ondoren, polizia nazionalaren ideia jada ez zen hain pentsaezina.

Zuzenbide Penala, oraindik ere lokala den arren, dagoeneko ez da lokala *bakarrik*, federalismoa oso presente baitago. Gobernu federalak parte-hartze txikia du lapur, hiltzaile eta bortxatzaileak bilatu, atzeman eta epaitzen, baina hasia da Estatuarteko krimen, iruzur fiskal, Estatuaren arteko mugak gurutzatzen dituzten bahiketa, eta, batik bat, beharbada, programa estatal eta lokalak diruz laguntzen. Eta, Zuzenbide Penalean gertatu dena, Gobernuaren eta Zuzenbidearen beste alor guztiz “lokaletan” ere gertatu da: hezkuntzan, nekazaritzan, familien arazoetan, etab. Neurri handiago edo txikiagoan, Gobernu federala kontrol sozialeko alderdi guztietan dago presente.

Gobernu
nazionala
indartzen joan
da

Ziur aski ez da oso zuzena izango Gobernu nazionalaren hazkundea gerrekin, depresioekin eta beste zorigaitzoekin uztartzea, horrelakorik gertatu izan ez balitz ere Gobernu zentrala hazi egingo zelako. Ez zegoen beste aukerarik. XIX. mende bukaeran garbi ikus zitekeen bananduta zeuden subiranotasun legalak ez zirela industrialismoak aske utzitako indar ekonomikoak bideratzeko gai izango. Zalduneriako soldaduen eskualdearen kontzepzio primitiboa, minifundioen jabeen federalismoa, ez zen errealtate bihurtu. Bidea XIX. menderako markatuta zegoen, eta ildo horri jarraitu zitzaion: biztanleria gero eta ugariagoa zen, negozio handiak gero eta gehiago hazten ziren, landan gero eta jende gutxiago bizi zen, eta hirietan gero eta gehiago. Jendeak gero eta menpekotasun handiagoa zeukan beste pertsonetikiko, baina beste modu desberdin batean, ez baitzegoen talde txikien menpe, eta ezta beste pertsonen menpe ere, ezezagunen menpe baizik (saltzaileak inoiz ez zituen erosleak ikusten, gaixoek ez zeukaten harreman esturik sendagilearekin, langileek ez zekiten ugazabaren izena zein zen). Nazio erraldoi bateko kide ziren guztiak. Teknologia komunikazio eta garraiorako lotura komunak sortu zituen, merkatua nazionala zen, eta irrati-telebista sareak nazional bihurtu ziren. 80ko hamarkadan, New York eta Los Angeles lo egiteko, edateko eta zinemara joateko hiri bihurtu ziren. Bertan zegoen *jet*-a.

Erabakigarria izan zen, halaber, Gobernuari zuzendutako eskaerak izan zuten gorakada. Historiari buruz idazterakoan, oharkabean askotan erabiltzen dira forma pasiboa eta esaldi inpersonalak. Erraza da Gobernu hazi egin zela eta botere federala gero eta leku gehiagotara zabaldu zela esatea, arrautza batetik txito bat jaiotzea bezain erraza, erreazio kimikoak bezalako prozesu naturalez edota ia-ia biologikoki programatutako bilakaera bati buruz mintzatuko bagina bezala. Politikariei asko gustatzen zaie Gobernuari buruz hitz egitean gauzak puztea, erregimena gose aseztina duen gizaki lodi bat izango balitz bezala. Honetan guztian bada egia apur bat, baina apur bat besterik ez. Parkinsonen legeak eta burokraten diruzalekeriak hazkunderaren hainbat alderdi azaltzen dituzte, baina ez guztiak. Erakundeek handiagoak, indartsuagoak eta hobeak izan nahi dute, eta erakunde hauen buru egiten dutenak handizale eta zapaltzaileak dira. Baina hori ez da Gobernu modernoaren hedadura itzelaren oinarri nagusia. Oinarri nagusiak

erantzun publikoak –hau da, gubernamentalak– eskatzen dituzten talde zehatzek egingako eskari zehatzak dira.

Ziurrenik *New Deal* da kontsumitzaileen eskariari erantzutearren Gobernua zenbat hazi zen erakusten duen adibiderik hoberen eta garbiena. Herria, 1932an, liderren gosen. Ekonomia putzu sakon batean murgilduta zegoen. Gobernu lokala lur jota eta erabat galduta zegoen. Jendeak enplegua, egonkortasuna eta erreforma ekonomikoa eskatzen zizkion presidenteari. *New Deal* programa izugarri ospetsua egin zen bere garaian, eta 1930ean hasitako hura hainbestearaino barneratu da amerikarren bizimoduan, inor ez dela *New Deal*-en muina ukitzen saiatu ere egiten, ezta Ronald Reagan bezalako presidente errepublikar kontserbadore bat ere. Gizarte Segurantza (SEC delakoa) –enpresa federal handi baten modukoa– eta lan legedi nazionala, ahalik eta errotuen daude mundu aldakor honetan. Epe laburrean, politikoki ezin izango dira ukitu ere egin. Barry Goldwater jaunak atentatu batekin ordaindu behar izan zuen Gizarte Segurantzaren sistema aldatzeko asmotan zebilela esan izana (1964), inon den gauzarik sakratuena iraindu izan balu bezala.

New Deal
programa

Gobernu handi batek, bestetik, elur bolaren efektua sortzen du. Zenbat eta handiagoa izan, orduan eta diru gehiago behar du, eta gero eta jende gehiago behar da sistema horri eusteko. Horren aurrean, Gobernuak ikaragarriko zerga sistemak ezartzen dituzte, eta enplegatzaile handiago bihurtzen dira, ekonomiaren gainean beste kontrol maila bat ezarriz. Gerra hotz eta beroak erabakigarriak izan dira prozesu hauetan, baina ez ezinbestekoak. Franklin D. Roosevelten garaia aurretik, pentsaezina, astronomikoa eta zientzia fikziozkoa zen urteko laurogei bilioi dolarreko aurrekontu federala izatea. Gaur egun, oster, Gobernu federalak, gerran eta defentsa nazionalen bakarrik, Roosevelt –edo Kennedy, edota baita Nixon ere– ziplo erortzeko moduko kopurua xahutzen du urtero. 80ko hamarkada honetan, 300 bilioi dolar inguruko aurrekontua du defentsak.

Baina Gobernu bat asko hazi arren, eskariaren eta eskaintzaren legea ez da desagertzen. Gobernu handi batek herritarren pentsaeran eta kultura legalean izango ditu beharbada ondorio nagusiak. 1900. urtean, jendeak ezer gutxi espero zuen Gobernu nazionalarengandik. Armadaz, posta zerbitzuaz eta trenbideez arduratzen zen, alor garrantzitsuak guztiak, jakina, baina Gobernuaren prozesuaren muina Estatuetan zegoen. XX. mendeko gertakizun guztiak zentrua handitzeko helburuarekin jazo zirela dirudi. Jendea, Estatuetakoa hiriburuetara beharrean, Washingtonera begira jarri zen. Eta arazoren bat zeukatenez (delitu bat leporatu zietela, beren seme-alabek ez zutela ezer irakurtzen, etab.), beste ezer baino lehen, Washingtonek erantzun bat eman ziezaiela nahi zuten. Honek, azken batean, goitik behera, eta ezkerretik eskuinera, sistema legalaren federalizazio partzial bat islatzen du.

Gobernu estatal eta lokalen gainbehera erlatiboa izan da, ez erabatekoa. Edonola ere, Gobernuaren bigarren eta hirugarren maila hauek izugarriko ahalmenak dauzkate. Gobernu estatal eta lokalek oraindik ere eskuduntza asko dauzkate funtsezkoak diren arloetan. Beraiek arduratzen dira errepideak egiteaz, eskolak eta ongizate sistema administratzeaz, polizia eta suhiltzaileei ordaintzeaz, ezkontzeko lizentziak emateaz eta dibortzioak deklaratzeko. Arlo hauek guztiak izugarri hazi dira XX. mendean zehar. Baina *New Deal*-en garaia erabakigarria izan zen. Inolako egonkortasunik ematen ez zuen monopolio lokala desagertu egin zen. Gobernu federala aberastu eta indartu egin zen, eta, gerora, hezkuntzan, ikerketan, ospitaleen eraikuntzan eta Estatuaren arteko autopistetan ere esku-hartzen hasi zen. Hala ere, arlo hauen eguneroko administrazioak batik bat federazioen azpiko erakundeen esku darrak. Frantziarekin eta Sobiet Batasunarekin alderatuz gero, oso deszentralizatua dago oraindik, eta boterea oso banatuta.

Hori, besteak beste, deszentralizazioa kultura legalean barneratuta dagoelako gertatzen da. Zenbait ikuspegi politikotatik begiratuta, fragmentazioa praktikoa suertatzen da. Jendeak, taldeek, kontrol zentrala eskatzen dutenean, ez dute Gobernu handi bat eskatzen, jende gutxiri axola baitzaio Gobernua handia edo txikia den –zergatik beharko lioke axola?–. Axola zaiena emaitzak dira. Ez diete garrantzi politiko handiegirik ematen zentralismoaren edo deszentralismoaren inguruko argudioei. Eskatzen dutena beste gauza bat da. Estatuaren eskubideak aldarrikatzen ibiltzen zirenak ez ziren teoria politiko bat aldarrikatzen ari. Interes eta eskari batzuk zeuzkaten, eta bazekiten bakoitzaren eske nora jo. Beste alde batetik, jendeak eta Gobernu lokalek maila federalaren esku-hartzea eskatzen dutenean, askotan ez dute kontrol zentralik eskatzen; dirua da nahi dutena, Gobernu zentralak eurek baino errazago eskuratzen duen dirua. Programa federal deitu-

riko asko ia ez daude batere zentralizatuta; boterea eta interesak talde lokalen artean banatzeko tresnak baino ez dira. Horren adibide klasikoa, birgarapen hiritarraren programa dugu. Programa hau 1949an jarri zen martxan, eta araudi federal mardul batek garatzen zuen arren, funtsean fondoak desbideratzeko estrategia bat zen. Tresneria federal efizienteek, beti bezala, zergak bildu eta hirietara edo agintari lokalengana bideratzen dute dirua, eta hauek, gutxi gorabehera, nahi dutena egiten dute diru horrekin, oso muga eta kontrol zabal eta orokorrak ezartzen baitzaizkie.

Zuzenbide
federalak hartu
duen
garrantzia

Beraz, azken laurogei urteotako gertakizunak gertakizun, Washingtonen bitartez ehunka bilioi dolar bildu eta xahutu diren arren, eta –literalki– milaka arazo federal egonik ere, kontrol eta balantzeen sistemak –edo gaitzak– ez du behar bezala funtzionatu, ezta gutxiagorik ere. Lege sistemak, alderdi ugariatik, boterearen mosaiko bat, trapu zaharrek egindako alfombra bat izaten jarraitzen du. Alde batetik, Zuzenbide federalak aurreko mendean baino askoz ere garrantzi handiagoa du (zergagintzan, negozioen arauketan, eskubide zibiletan, ingurumenaren babesean, etab.), eta gaur egun masiboa, menperatzailea eta autoritarioa da. Presidente ia tsar baten parekoa da kanpo arazoaren arloan. Vietnamgo Gerrak sortutako etsipenaren ondorioz Kongresua presidentearen ahalmenak murrizten saiatu den arren, oraindik ere tropak mugiarazteko ahalmena izaten darrai (adibidez, Libanon sartu eta ateratzeko, Ronald Reaganek 80. hamarkadan egin bezala).

Baina Gobernuan dauden beste ahaltsuek, formalki nahiz informalki, kontrolatu eta mugatu egiten dute presidentek beste hainbat arlotan duen boterea. “Zuzenbide federala” koltxoi malgu bat da; alde handia dago programa federal batetik bestera. Ikusi, adibidez, zein modu desberdinean funtzionatzen duten posta bulegoak eta Vietnango Gerra garaian soldaduek zehaztutako sistemak; ikusi zein posiziotan dauden *Federal Reserve Board* (Estatu Batuetako Banku Federaleko Zuzendaritza Batzordea), edo Auzitegi Gorena, edo Gizarte Segurantzako Administrazioa, edo Zientzien Fundazio Nazionala, edo FBI.

Zuzenbide estatalak indartsu jarraitzen du. Eskola kontinentaletan Zuzenbide pribatu deitzen dioten arlo ugarian, azken hitza Estatuaren esku dago oraindik: Merkataritza Zuzenbidean, Kalteordainen Zuzenbidean, Jabetza Zuzenbidean, Ezkontzen eta Dibortzioen Zuzenbidean, etab. Estatu eta hiriek jendearen eguneroko bizitzako alderdi desberdinak ukitzen dituzten milaka arau onartzen dituzte: hirigintza, iturgintza nahiz elektrizitateari buruzko kodeak onartzen dituzte¹; gehiengo abiadura zein izango den erabakitzen dute; aparkalekuak finkatzen dituzte; tintorerietako garbiketen eta iturginen jarduera arautzen dute; faisai eta oreinen ehiza sasoiari hasiera noiz eman agintzen dute; ezkontzeko, txakur baten jabe izateko, barazkiak saltzeko nahiz taberna bat zabaltzeko eskubideak kontrolatzen dituzte, etab. Lehen adierazi bezala, Gobernu federalarekin partekatzen dituzte eskolen gaineko erantzukizuna eta araugintza, baina lan gehiena maila lokalean egiten da, ez nazionalean. Eurek egiten dute ongizate sistemak funtzionatzeko lan zikina ere.

Ameriketako politikan eta Zuzenbidean oso presente dago lurjabeen sistema, eta sistema honek oraindik ere muzin egiten die botere absolutuaren arrastoei. Gobernu estatala beti izan da oso kontuan eduki beharreko indar bat. Herrialdeek ahalmen –mugatu– batzuk dauzkate. Hiriek, arauen bidez, edo araurik gabe, jurisdikzio handien aurka jotzen dute, eta gainditu egiten dituzte. Bigarren Mundu Gerraz geroztik hainbat instantzia Gobernu federalarekin elkarbanatu dituzte, bezero bereziak balira bezala, eta joera honek, nahiko izen bitxiak hartuz, gora egingo duela dirudi. Hala ere, boterez hornituta dauden esparru txiki asko daude: estolden distritoak, eskolen distritoak, airearen poluzioaren distritoak, edota New Yorkeko Portuko Agintaritza bezalako erakunde botereetsuak. Antza, distritu eta agintaritza hauetako batzuek ez dute inoren aurrean erantzun beharrik. Batzuk motoek jaurtitako nikelarekin eta txanponetako planktonarekin elikatzen direnez gero, neurri ikaragarriak hartzen dituzte.

Hirietako
eremu txikien
erresistentzia

Bestetik, 1900. urteaz geroztik, Gobernu lokalaren arrazionaltasuna hein handi batean *txikitu* egin da. Hiria, oro har, hazi egin ziren XIX. mendean, biztanle kopuruak gora egin ahala, baina 1900. urtearen inguruan prozesu hau eten egin zen. 1930etik aurrera, hiri nagusietako biztanleriak behera egin zuen –mendebaldeko eta ekialdeko

1. Kasu honetan, nolanahi ere, 1980koetan bezain argi ikus daitezke eskuhartze federalaren arrastoak.

leku batzuetan izan ezik—, eta zenbaitetan beldurtzeko moduan gainera. Horrek ez du esan nahi jendea landara itzultzen hasi zenik, ez horixe; landak husten jarraitzen zuen. Jendeak atzean zakur basatiak balitu bezala alde egiten zuen hirietara. Baina hirien mugak finkatuta daude. Area metropolitarrak —izugarri handiak— hiriguneetarako, suburbio zaharretarako, suburbio berrietarako eta eremu txikietarako daude aurreikusita; eta batzuk auzoak besterik ez diren arren, New York edota Chicago bezain autonomoak dira —teorian—. Eremu txiki hauek gogor egiten diote aurre gainera etortzen zaien aglomerazio handiari. Eurek izan nahi dute beren ildoak finkatuko dutenak. Zehazki, beltzak eta diru sarrera gutxi dauzkatenak sartzea galarazi nahi dute, beren lurraldearen jabe izan nahi dutelako. Horretarako, funtsezkoa da lurra nola erabiltzen den kontrolatzea, eta praktikokoagoa gertatzen zaie kontrol hori eremu txikietan egitea. Ehunka “herri” dira hitzarmen murriztaile edo zonalderako ordenantzak sortuz beren buruari goi mailako izena eta merezi ez duten boterea eman diotenak.

Azalpen labur hauen bidez, Zuzenbide amerikarraren bilakaera ikus daiteke; uniformitatearen eta aniztasunaren, zentralismoaren eta lokalismoaren arteko borroka amai-gabea, alegia. Agian, horrelakoxea izan beharko luke, gainera. Baina borroka hori ez da lehenbailehen eta betiko konpondu beharreko “arazo” bat, ez baita arazo bat, gertakari bat baizik, eta gertakariak ez dute konponbiderik. Jurisprudentzia kontzeptualaren eta “Zuzenbidearen erreformaren” aldeko mugimendu batzuen iritzian, arazoa uniformitatea izatea edo ez izatea da, boterearen edo kultura legalaren aniztasuna izatea, eta zentralizazioa edo deszentralizazioa izatea. Baina horiek dogmatismo legalen ikuspuntutik bakarrik kontsidera daitezke arazo, bizitza errealeko arazoak bestelakoak izaten direlako: pobrezia, airearen kutsadura, gaizkiletza, hazkunde ekonomiko txikia, nahiz gizartearen-tzat kaltegarri den beste edozer. Egituraren ezaugarriak edo ondorioak dira.

Baina ez dira txantxetako ezaugarri edo ondorioak. Koska nagusia boterea da: non dagoen, eta noren esku egon beharko lukeen. Sistema legalaren egituraren ezaugarriak boterearen banaketa islatzen dute, eta,aldi berean, eragin egiten diote botereari. Helburu bat lortzeko egokia den banaketa, desegokia da beste helburu bat lortzeko. Epaimahaiak onak dira, baina litekeena da Hegoaldean zuriez osatutakoak desegokiak izatea. Politikoki sentiberak eta aktiboak diren amerikarrek oso hurbiletik sentitzen dituzte arazo praktikoa hauek. Honi ematen zaion erantzun klasikoa, boterea konpentsatzeko geruza gehiago sortzea da, horrela sistema orekatu delikatu bat sortzen delako, izugarri konplexua, baina oso erresistentea. Akats ugari dauzkan arren, oso zaila da berau berri-tu edo erreformatzea. Inoiz, egunen batean, desegin egingo da.

Kultura legal amerikar modernoa: pluralismoa eta instrumentalismoa

Labur esanda, adierazi behar da deszentralizazioa ez dela desagertu, ezta historia legal amerikarrean hainbat helburu lortzeko sortu den joera federalista nagusiaren aurrean, dela kultura legal askoren artean kultura nagusi bat sortzeko, dela pluralismo legala murrizteko, Zuzenbide sistema formalaren oinarria zabaltzeko, Zuzenbide horren kontsumitzaile edo objektu diren pertsonen kopurua handitzeko, etab. Joera hori bera nagusitzen da XX. mendean, eta indartuta gainera. Erdi Aroko Ingalaterran pertsona gutxi batzuk bakarrik ziren *Common Law*-ko subjektu edo objektu, baina orduetik zabaldu egin dira Zuzenbide ofizialaren esparrua eta xedeak, eta orain *Commonwealth*-eko ia biztanle guztiei aplikatzen zaie.

Deszentraliza-zioa da joera nagusia

Gehiago zehaztu beharko litzateke azken adierazpen hau. Lehenik eta behin esan behar da hasiera batean auzitegi errealek eta hauen doktrinak osatzen zutela Ingalaterrako *Common Law*. Feudo ingelesetako nekazariak apenas zeukaten zerikusirik *Common Law*-rekin, baina feudoetan ere bazen “Zuzenbiderik”: “ohitura” lokalak, hain zuzen ere. Kolonietako auzitegi-tako aktetan, edozein urtetakoetan, jende heldu ugari azaltzen zen, eta beharbada XIX. mendean hori ez zen gehiegitan gertatzen hirietan eta landako herrisketan. Gaur egun jende guztiari aplikatzen zaio Zuzenbidea: korporazio handietatik hasi, eta hiri handietako kaleetan aire beroa jaurtitzeko duten aire irteeren gainean lo egiten duten arditeak arteko guztiei. Zuzenbideak pertsona guztiei ukitzen die beren bizitzaren alderdiaren bat. Baina horrek ez du esan nahi 1985eko herritarrek, oro har, 1785ekoek edo 1885ekoek baino askatasun gutxiago dutenik. Hori beste kontu bat da, eta konplexua gainera.

Bigarren, esan behar da herrialde honetan Zuzenbide ofiziala eta Zuzenbide bizia ez direla gauza bera, eta inoiz ez direla izan. Ezta antzekoak ere. Zuzenbidearen historiako misterio guztien artean ilunena, mugimenduan eta bizirik dagoen Zuzenbidea da, ez mitoa edo arau ofiziala. Zuzenbide informalak –eta korrupzioak–, ostera, ez digu arrasto ofizialik uzten, Zuzenbide ofizialak uzten digun bezala. Estatutuek, kasuek, txostenek, arauak eta agintarien aldarrikapenek bizirik dira, baina gainerakoa, edo desagertu egin da, edo inoiz ez da ezagutzerik izan. Gaur egungo lege soziologoak poliziek, epaileek eta abokatuak egiten dutena aztertzen aritzen dira, eta ez hainbeste egin behar ko luketena, edota esaten dutena egiten ote duten –teorian oso ideia sinplea da, baina praktikan ez hainbeste–. Zuzenbideak agindutakoa, arauak alegia, iraganean ez ziren gaur egun baino gehiago betetzen edo errespetatzen. Inpresio hau ebidentziak berak egiaztatzen du.

Nolanahi ere, argi dago lege kultura zehatz eta bakar bat izateko joera dagoela, eta joera hori benetakoa, iraunkorra eta esanguratsua da. Alderdi gehienetatik, eskualdea unitate ekonomiko bat da, eta ikuspegi askotatik unitate sozial bat. Komunikabide eta garraioek asko orekatzen dute egoera. Amerikarrak beti izan dira bidaiari porrokatuak, gizon-emakume nekaezin eta mugikorak. Eskualdeen arteko aniztasuna orekatzen duten indarrak oso sendoak dira. Mundu zaharreko (Asia, Afrika eta batez ere Europa) eskualdeekin konparatuta, eskualde honek inoiz ez du dialekto eta ohituren aldetik aniztasun gehiegi izan. Izatez, lokalismoaren isla garbienetariko bat, dialekto *juridikoak* izan dira, neurri batean, hots, hizkera juridikoak berrogeita hamar Estatuetan barna dauzkan bertsioak. Baina 1980ko hamarkadan, gero eta leku gutxiago eman zaio erregionalismoari, eta baita Zuzenbidearen erregionalismoari ere.

Masako
merkatua eta
arrazionalismoa

Hein batean, hori da arlo guztiz efizienteetan gertatu dena. Masako merkatuen garaian ez dago erregionalismoa aplikatzerik. Berrogeita hamar estatutan saltzen duen enpresa batek nahiago izango du hizkuntza bakar bat mintzatu, saltzeko modu bakar bat erabili, eta Zuzenbide bakar bati lotu. Gainera, XX. mendeko pentsaerak arrazionaltasunera jotzeko joera handia du. Mendebaldean nahiko zabaldua dagoen ezaugarri hau guztiz errotuta dago Ameriketara. Amerikarrok, maila batean behintzat, ez daukagu irregulartasunetan ibiltzeko pazientziarik. Ingalaterran kontu handiz zaintzen diren ohitura eta tradizioak zakarki kanporatu dira Estatu Batuetatik, ergel edo infantilak zirelakoan. Zuzenbide modernoak, adibidez, ez du *Common Law*-ren fiziko juridikoa onartzen, ezta erabilgarri gerta daitekeen arloetan ere. Irrazionaltasun superfiziala jada ez dago modan.

Egoera hau, azken mendeetan mundu osoan zehar eman den mugimendu baten ondorio da, izen hoberik ezean arrazionalismo dei dezakegunarena. Iraultza Industrialaz geroztik, lehenagotik ez bada, arrazionalismoa funtsezkoa izan da mendebaldeko pentsaerarako. Eskola eta historialari ugari aztertu dute Zuzenbidera nahiz Zuzenbidetik at dauden esparruetara ekarri dituen aurrerakuntzak. “Arrazionalismoaren hazkundera” izan zen, hain zuzen ere, Max Weber-ek Zuzenbidearen eta gizartearen inguruan, forma legitimatzaile zahar eta tradizionalen gainbeherari buruz idatzitako lan ospetsuan aztertu zuen gai nagusienetariko bat².

Konplexua da gero “arrazional” hitza. Baina gaur egungo gizon-emakumeak “arrazionalak” dira, honako arrazoiagatik: ideia eta instituzioak, tradizional izate soilagatik, edo arrazoi erlijiosoengatik nahiz naturaz gaindikoengatik, ez onartzeko joera zabala daukatelako –apropos erabili ditut “joera” eta “zabala” hitzak. Tradizioa eta erlijioak ez daude ez hiltzear, ezta hilda ere. Amerikarrak, oro har, erlijiosoak dira, eta, dirudienez, 80ko hamarkadan erlijioek aurreko belaunaldietan baino indar politiko eta sozial handiagoa dute–. Ekintzek eta proposamenek erabilgarritasunaren test moduko bat gainditu behar dute. Lege sistema, tresna edo erreminta bat bailitzan ikusten da. Lege edo ekintzaren bat poposatzen den bakoitzean, jendeak zera galdetzen du: eta zer ekarriko dit horrek niri, nire sendiari edo nire taldeari? –kalkulu hauek, jakina, ez dute zertan ekonomiko hutsak izan behar–. Gobernu eta gizarte guztiek antzeko galdera egiten dute.

Instrumentalis-
moaren
ondorioak

Instrumentalismoak izugarriko ondorioak dauzka, eta ondorio horietako batzuk oraindik ez dira desagertu. Esate baterako, demokrazia politikoa. Eta ongizate gizartearen gorakada. Hirugarren bat, zientzia modernoa litzateke. Laugarrena, Zuzenbidearen

2. Ikus, oro har, Max Rheinstein, *Max Weber on Law in Economy and Society* (1954).

aurreko berdintasuna. Bosgarrena –berriena–, aukeren berdintasunaren aldarrikapena da, berdintasun formalik ez dagoen kasuetarako –talde oprimitu edo subordinatuen aldetik–. Beraz, epe luzera, instrumentalismoa pluralismo juridikoaren etsaia izango da. Ez eskualdeen pluralismoaren etsai, pluralismo bertikalarena baizik. Izan ere, klase edo maila anitz egonik, bakoitzak bere posizioa dauka; batzuk behe mailatik gertu egongo dira, beste batzuk goi mailatik, eta behe mailako jendea lasaia, errespetatzailea eta oneslea da.

Baina pluralismo bertikalak ez du amore erraz ematen, jakina. Autointeres arrazionalak direla-eta, goian daudenek ez dituzte oso ondo hartzen beren botereari edo domeinu moral eta etikoari zuzentzen zaizkien mehatxuak. Denbora batean, XIX. mendean batez ere, berdintasun formal apur batek, *itxuraz*, asetu egiten zituen tarta handiaren, tarta nagusiaren, tarta goxo eta betearen zati bat bera ere sekula dastatu ez zuten talde asko. Gutxi batzuek mugikortasuna zeukaten bitartean, gehien-gehienek ametsak zeuzkaten. Baliteke Ingalaterran portaera tradizionalak zuen indar absolutuak boterea elite batetik talde zabalago batera transferitzea baretu izana. Dirudienek, gehiengo desiatzen zegoen elitea bera izan zedin bere klase sistema deuseztatuko zuena. Estatu Batuetan, hainbat faktorek apaldu egin zuten joera hori, hala nola Amerika mendebalde basatiaren mugaldea, aukera errealek, eta enpresa askeari zitaion kultuak. Baina, inguruabar desberdinen ondorioz, txikitu egin zen produktu sozialak birbanatzeko eskaria. Mugaldea ez zen “segurtasun balbula” bat bakarrik; hortxe ziren, baita, arrakasta lortzeko itxaropena, aukeren kultura eta kultua. Bizitza loteria bat zen, baina txartelak hiri guztietako txoko guztietan zeuden txanpon gutxi batzuren truke salgai.

Eskubideen aldeko borroka

Edonola ere, *egon da* iraultzarik gabeko garai lasairik ere. Baina gutxi iraun du, antza. Estatu Batuetan XIX. mende bukaeran sortu ziren langileen mugimenduen erupzio bolkanikoek izua zabaldu zuten herritarren artean. Gora-behera ugairaren ondoren, langileen alderdiek ikaragarritzko garaipenak lortu zituzten XX. mendean legediaren ikuspegiatik. Garaipen hori zenbateraino izan zen borroka politikoaren ondorio, edo hazkunde ekonomikoaren eta teknologia modernoaren ondorio, ez dator harira. *New Deal*-en garaian eskuratu zituzten legearen aldetik lorpenik esanguratsuenak, 1930 inguruan. Gobernua sindikatuen aldarrikapenak jasoko zituzten legeak onartzeko prest azaldu zen. *New Deal*-en aldeko jende asko negoziazioen aurka zegoen. *New Deal*-ek hankaz gora jarri zuen sindikatuen eta kapitalaren arteko oreka ohoretsu eta prestigiotsua. Arau erregulatzailerik pila bat onetsi ziren, eta horietako askoren bidez agentzia administratiboak sortu ziren. 1935eko *National Labor Relations Act*³ (Lan Harremanetarako Araudi Nazionala) delakoak sindikatuzko eskubidea bermatzen zuen, eta, eskubide hau oztopatzea “arbuigarria” zela adieraziz, araudia errespetarazteaz arduratuko zen batzorde bat eratu zuen⁴. *New Deal*-en argitara, halaber, langabezia aseguruari, zaharren pentsioei eta etxe publiko buri buruzko lehen programak sortu ziren.

Langileen legedien onspena

1929ko *krak*-ak eta hortik eratorritako depresioak gogor astindu zuten merkataritza, eta lur jota utzi zuten moralak. Ikuspegi politikoan, merkataritza inoiz ez zen 30. hamarkadan bezain ahula egon. Enpresariak ihesari eman zioten bitartean, klase langileak hutsik gelditu ziren jauregiak hartzen hasi zen. Hala ere, epe luzera begira, klase langilearentzat ziurrenik garrantzi handiagoa izan zuen Bigarren Mundu Gerrak ekarritako oparotasunak, *New Deal*-eko erreformak baino. Oparotasun horrek, gainera, indarra eta boterea itzuli zizkion merkataritzari, eta bere eraginaren hein handi bat berreskuratu zuen –ez guztia–. Jada ez zegoen 30. hamarkadan arnasten zen gorrotoaren arrastorik, eta 60, 70 eta 80. hamarkadetan inork gutxik hitz egiten zuen “monarkia ekonomikoa”-ri buruz. Gerra amaitutakoan hain azkar bizkortu zen ekonomia, langileek eta ugazabek elkarbanatu egin zituztela ondorioak. Sentimendu onak izateko garaiak ziren. Nagusien eta maizterren interesek askoz ere antzekoagoak ziruditen. Adibidez, 1945 baino lehen, beteranoei inoiz ez bezala laguntzea erabaki zuen Gobernuak, eta milioika soldadu eta marinel eskolatu zituen. Neurri honekin, besteak beste, beteranoei lan merkatua ez

Bigarren Mundu Gerra amaitzeak ekarritako onurak

3. 49 Stats. 449 (1935eko uztailaren 5eko araudia).

4. Norris-LaGuardia Araudia 1932an onetsi zen, Hoover oraindik presidente zela, eta bertan behera utzi zuen agindu sindikala. 47 Stats. 70 (1932ko martxoaren 23ko araudia).

betetzea lortu zen. Bestetik, Gobernuak maileguak eman zizkien negozio txiki bat zabaldu nahi zutenei, eta horrela erdi mailako familiei eskura ipini zien dirua, beren ametsak bete ahal izan zituzten, suburbioetan patioa, garajea eta sukalde berri bat izango zituzten etxe bat izatea, adibidez. Programa horrek igeltsero eta iturginentzat lana ere aurreikusitua zuen, eta dirua ipini zuen kontratisten eta bankari hipotekatzailen nahiz igeltsu, kristal, tuberia eta komun fabrikatzaileen saketan.

Eskubide zibiletatik haratago

60ko
hamarkada

1950erako hainbeste eta hain azkar garatu zen ekonomia, ezen batzuek ahaztu egin zutela Ameriketako azpiklaseak zeudela. Arituak, gehiegizko aisialdiaren aurrean kezkatuta, gizarte aberatsaren arriskuei buruzko liburuak idazten hasi ziren. Ia ahaztuta zegoen langabezia izeneko aisialdi inposatua zer zen ere. Ametsetako mundu panglosiar honetan, ikaragarriko ezusteko desatsegina suposatu zuen beltzen altxamenduak, eta gero marroienak, horienak, gorrienak eta emakumeenak. Lyndon Johnson-en pobrezia-aren aurkako borroka (1964-65), garbiketa ekintza gisa ikusi zen. Aldarrikapen bat baino gehiago, gerra bat zen. Jende askorentzat, Pandoraren kaxa zabaltzearen parekoa izan zen, gorrotoa, klaseen arteko borroka, atzerakada eta gogoeza ekarri zituelako berekin, eta pozoitu egin zuelako giro nazionala. Vietnamgo gerrak ere gehiago okertu zituzten gauzak, bai sozialki, bai ekonomikoki. Horrela zegoen giroa 60ko hamarkadan: ikaragarriko ezinegona, borrokak kaleetan, suteak campusetan, hondamendi ekologikoa hurbiltzen ari zenaren sentsazioa, bere menpekoen beldur zen Gobernu paranoiko bat, eta kaleetan zehar Heriotza bailitzan arnasten zen delituekiko beldurra. Dependenteak zirenak, gainbehera egin zutenak, kanporatuak izan zirenak eta beste batzuren esku geratu ziren talde edo klase guztiak hortzak erakusten hasi ziren: beltzak, presoak, behartsuak, ikasleak, homosexualak, lekaimenak, etab. Gizarteak talde subordinatuak eman zien lekua ez zela gehiago errespetatzen zirudien. Eta gizarteari berari ere errespetu gutxi zitzaion. Edo behintzat hala iruditzen zitzaion asaldatuta eta mehatxatuta sentitzen ziren milioika pertsonen.

Aztoramen hori, nolana ere, sortu zen azkartasun berdinarekin itzaliko zela ematen zuen. Lasaitasun bitxi batek hartu zuen eskualdea. Ez Gobernu kolokan jarri eta Richard Nixon presidentea desohoratu zuen Watergate eskandaluak, ez Carter administrazioaren fama txarrak, ez Iranen bahitutako krisiak sorrarazitako lotsak, ez Reaganen lehenengo urteetako atzerakada sakon eta destruktiboak, ez ziruditen bizitza publikoaren tenperatura irakite puntura igotzeko gauza.

Hau ez da historia, noski. Hau, munduak orain bertan bizi duen egoera da. 70eko nahiz 80ko hamarkadan izan diren gertakariak konplexuegiak dira modu orokor batean aztertzeko. Faktore ugari izan dira errebelioa —eta kontraerrebelioa— sortu dutenak. Jendeak benetan zer gertatu zen jakin gabe hitz egiten zuen Vietnamgo gerrari buruz, komunetako ohitura permisiboari buruz, haurrak zaintzeko Spock doktorearen teoriari buruz, erlijioaren gainbeherari buruz, eta abar. Eta 1980tik aurrera, eskubide zibilen aldeko iraultzaren atzerapausoari buruz hitz egiten hasi ziren, Warren auziari buruz, Vietnam osteko belaunaldiaren zinismoari buruz, erlijioaren eta moral tradizionalen berpizkundeari buruz, eskubide erradikalaren indarrari buruz, eta beste faktore ugariari buruz.

Litekeena da —nahiz eta ziur aski hau ere ez den guztiz zehatza izango— jendeak 60ko hamarkadako errebelioa eta 70eko eta hurrengo urteetan sortu zen errebelioa exageratzea. Ildo nagusien artean ere joera desberdinak zeuden. “Errebelioa”, alde batetik, arrazionalismoaren tipularen beste geruza bat zuzitza zen, pentsaera sekular modernoaren ondorioetako bat. Gure hizkera legal arruntan, hori beste kultura juridiko bat sortzeko prozesuaren zati bat dela esango genuke, aurreko belaunaldietako pluralismo bertikalaren ordekoa. Inor ez zegoen, zeukan kolorea zeukala eta zegoen egoeran zegoela, maila baxuago edo hutsal bat onartzeko prest, ez eta gehiengoak —edo gutxiengoak— pentsatutako definizio kaltegarriak ere. Iraultza berri eta garrantzitsu hau ez zen, ez horixe, bomba batekin parekatzeko modukoa. Ikusi dugun bezala, segida luze bateko pauso bat besterik ez zen; liburu honetan bertan, atal batzuetan, deskribatzen ditut lehenengo pauso horiek. Azken fasean, Zuzenbideak paper egoki baina zorrotza betetzen zuen. Auzitegi federalik egon izan ez balitz, pentsaezina izango zatekeen 1950 eta 1960ko hamarkadetako eskubide zibilen iraultza gertatu zen moduan gertatzerik. Honek ez du esan nahi auzitegirik egon izan ez balitz iraultzarik gertatuko ez zenik, baizik eta beste modu batean gertatuko zatekeela. Beste modu desberdin —agian basatiago— batean.

Beltzak leku ugaritan borrokatu ziren beren eskubideen alde. Garrantzitsuenetariok, ziur aski, kaleetako borrokak izan ziren, autobusetakoak –beltzek uko egiten zioten bereizita bidaiatu behar izateari–, tabernetakoak –behin eta berriz eskatu behar izaten zuten zerbitza zietela–, eta eskoletakoak –eskolara joateko eskubidea aldarrikatzen zuten–. Zuzenbideari dagokionez, XVIII. mendeko agiri batera –Eskubideen Gutuna (*Bill of Rights*)– eta Konstituzioko 14. emendakinerara –hau ere ehun urtetik gorakoa (1868)– jotzen zuten. Emendakin hau, boterea eta zereginak Gobernu federalaren eta estatalaren artean, epaile federalen eta estatalen artean, eta epaile, legegile, funtzionario nahiz iritzi publikorako esanguratsua zen edonoren artean banatzen ziren moduaren ondorio potentzialan oinarritzen zen. Testu hauetatik abiatuz sortu zen Zuzenbidea modernoa zen batik bat. 1868rako –kasu askotan, 1800rako ere–, Estatuak oinarritzko printzipioz betetako eskubideen gutunak prestatu zituzten, baina, hala ere, eskubide eta askatasun zibilen legeria –adierazpen eta erlijio askatasunari buruzkoa, adibidez– XX. mendekoa dela esan daiteke, XIX. mendean gatazka gehiegi izaten ez zenez, Zuzenbide Konstituzionalaren adar hau urri samarra zelako. Honek ez du esan nahi Eskubideen Gutuna inolako baliorik gabeko arau bat zenik. Nolanahi ere, handitzen zihoan Zuzenbide modernora hurbiltzeko joera, lehen inondik inora ez zegoena.

Eskubide eta askatasun zibilen aldarrikapena

Termino, kontzeptu eta esaldi juridikoek bizitza propio garrantzitsu bat dutela dioen premisa zeinen burugabea den ikusteko, ez dago eskubide eta askatasun zibilen historiari begiratzea baino gauza hoberik. Har dezagun adierazpen askatasun sakratuaren eta ziurrenik hain sakratua ez den “lizunkeria”-ren artean dagoen desberdintasunaren auzi latza. 1790ean zeuden oinarritzko kontzeptu eta testuak, 1980koen antzekoak ziren. Inork esan dezake testu horiez gain liburu lizunak ere bazeudela, eskuz esku mahai azpitik pasatzen zirenak. Izan ere, nahiko ironia bitxia da garaiko jurisprudentziaren erabaki nagusietariko batzuk XVIII. mendearen amaieraz geroztik lehenengo emendakin gisa bueltaka dabilen *Memoirs of a Woman of Pleasure* (Plazerreko emakume baten oroitzapenak) edo *Fanny Hill* izenez ezagunagoa zen liburu zaharrari buruzkoak izatea. XIX. mendeko argitaratzaile eta irakurleei ez zitzaion bikote bitxi hau uztartzea (*Fanny Hill* liburua eta lehenengo emendakina, alegia) bururatu ere egin. Zergatia, nahiko konplexua da. Moralitate konbentzionalak behera egin zuen, eta argitaratzaileen zekenkeriak apurtu egin zituen ordura arte zeuden mugak. Aintzinako oztopoak gaudituz, erreprimetuta zirauen litigazio korrante bat sortu zen. Handik gutxira, lotsagabekeria pentsaezin –baina pentsatzen zirenak– eta argitaraezinak –baina argitaratzen zirenak– hasi ziren jendaurrean azaltzen. Eta inork ez zituen egile eta argitaratzaile hauek boikoteatzen. Inork ez zion jende hau bere etxera afaltzera gonbidatze-ari uzten. Milioika liburu saldu ziren, eta auzitegiek onartu egiten zituzten.

Baina, zergatik onetsi zuten auzitegiek horrelakorik? Lehenik eta behin esan behar da tradizio konstituzional bat eta doktrina aktibista bat zeudela. Jendeak eztabaida mota oro (sozialak, ekonomikoak zein politikoak) epaitegietara eramateko ohitura zeukan. 1800 nahiz 1900. urteetan, hasieran, inork ez zuen uste auzitegiak *Fanny Hill*, panfleto erradikalak edo Jehovaharen Lekukoak onestera iritsiko zirenik. Auzitegiak askatasun zibilen foro bihurtu ziren, esperimendu eta akatsez betetako prozesuen lekuko. Politikoki ezinezkoa bihurtu zenean Zuzenbidearen babesa lortzea –beltzentzat, fama txarreko gutxiengoentzat, eta *Fanny Hill*-en argitaratzaileentzat–, taldeen interesak blokeatu egin ziren, behintzat asmo handizaleak zituztenenak, eta beste bide batzuetatik jotzen saiatu ziren, laberintoetan zehar gazta bila ibiltzen diren xaguak bezala. Lehenengo aldia izaten da gogorra, gero errazagoa izaten baita bideari jarraitzea. Auzitegi abegikorrek gatazka gehiagori irekitzen dizkietenez ateak, fama txarra zeukaten gutxiengoak (Jehovaren lekukoek 40. hamarkadan, eta defendatzaile kriminal eta erradikalak 50 eta 60. hamarkadetan) auzitegi abegikor bat edo bi aurkitzen saiatu ziren, eta ordutik gehiagotan jo zuten auzitegietara. Gatazkak konpontzeko joera honen hazkundearen aurrean, auzitegiek beren funtzioa betetzeko presioa jasaten zuten, aldarrikapen indartsuen kasuan bereziki, desagertzen edo isiltzen ez ziren aldarrikapenetan, erantzun bat *eskatzen* zuten aldarrikapenetan, atzean indar politiko eta morala zeukaten aldarrikapenetan, hau da, atzean mugimendu edo indar bat zeukaten aldarrikapenetan.

Arazoen judizializazioa

Lehenengo Mundu Gerraren garaira arte, ez zen adierazpen askatasunari buruzko legedi seriorik sortu. Gerrak puri-purian ipini zuen txaubinismoa. Espioitza eta sedizioari buruzko legeak onetsi ziren. Sorginen ehizaren eta beldur gorriaren garaiak ziren, eta goera hau 1920ra arte luzatu zen⁵. Auzitegiak ez ziren korrante modernoek nahi bezain

5. Ikus Harry N. Scheiber. *The Wilson Administration and Civil Liberties, 1917-1921* (1960); Stanley Coben. *A. Mitchell Palmer: Politician* (1963).

heroikoak. Garai honetakoa da Oliver Wendell Holmes-en arriskuaren proba (Kongresuak hitz batzuk debekatu egin beharko lituzke, baldin eta hitz horiek, egoera jakinetan erabilia, Kongresuak eragotzi nahi dituen gaitzak sortzeko benetakoa eta nabarmena den arriskua sortzen baldin badute)⁶.

Geroko kasuek beste arazo delikatu batzuk aztertu zituzten; kongresisten ikerketak adibidez, McCarthy-ren garai aztoratuan zehar (50. hamarkadan) luze eztabaidatu zirenak. Film eta liburuen zentsoreen inguruko kasuak ere 50. hamarkadan hasi ziren seriotasunez aztertzen. 1940 eta hurrengo urteetan, Jehovaharen lekukoen fama txarreko sekta gogaikarriaren inguruko erabakiak hasi ziren hartzen, eta, ondoren, batzuren iritzian Elizaren eta Estatuaren arteko horma banatzailea gehiegi handitzen eta loditzen joan ziren beste kasu dramatiko batzuren ingurukoak. Kasu hauen artean azpimarragarrienak, 60ko hamarkadan eskola publikoetan erreztatzea eta Biblia irakurtzea galarazi zutenak izan ziren. Inkestek erakusten dutenaren arabera, jendeak nahiko gaizki hartu zituen erabaki hauek, eta azken hogeitau urteetan erabaki horiek aldatzeko saioak egin diren arren, gaur arte behintzat (1985) bide berari jarraitzen diote epaitegiek eta beren kasuek.

Auzitegi Gorena, Earl Warren buru zenean batik bat (1953-69), gizartearen iritzari aurre eginez, fama txarreko gutxiengoak babesten eta beren interesak sustatzen hasi zen. Ikusgarriak ziren prozedura kriminaleko kasuak. Auzitegi Gorenak akusatuen alde egiten zuen beti, eta zintzo betetzen zituen bilaketa, atxilotze eta epaiketa zuzenerako printzipioak; batzuetan, gainera, printzipio horiek epaileek beraiek sortzen zituztela ematen zuen. Kasuak dramatikoak izaten ziren. Alde batean Estatu egoten zen, eta beste aldean gizaki desitxuratu bat, auzitegiara arrastaka ekarritako mozkor bat, jokatzaile bat, drogazale bat, galtzaile bat, lapur txiki bat, maila posible guztien artean beherenekoa zen pertsona bat. Warrenen Auzitegia askotan jarri zen ahul hauen —eta beren abokatuen— alde. Earl Warrenen lekua Warren Burger-ek hartu zuenean (1969-), ordea, Auzitegiak utzi egin zion kasu horiek bultzatzeari, eta lehenera jo zuen. Baina kontserbadore fama bereganatu arren, Burgerren Auzitegiaren Zuzenbide gehiena orain arte mantendu da.

Auzitegi
Gorenak
moralitatearen
arloan
hartutako
erabaki
polemikoak

Are dramatikoagoak ziren Auzitegiak moralitatearen esparruan hartutako erabakiak. Hor ere ez zegoen atzera egiterik. Auzitegiak pribatutasunerako eskubide konstituzionala aintzatetsi zuen, antisorgailuak saltzea debekatzen zuten Connecticut-eko arau zaharrak derogatu zituen, eta, azpimarragarriena, *Roe v. Wade* kasuan (1972), abortua era murrizkor batean arautzen zuten eskualdeko lege guztiak derogatu zituen. Arau hauen ordeaz, formula konplexu bat ezarri zuen, funtsean emakumeei haurdunaldiaren lehenengo fasean abortatzeko erabateko askatasuna ematen ziena, Estatuak ezertarako esku hartu gabe. Ziur aski *Dred Scott* kasuaz geroztik ez da egon hainbeste hauts harrotu duen erabakirik. Ordutik hamar urte aztoratu baino gehiago igaro diren arren, Auzitegiak ez du atzera egin, eta *Roe v. Wade* kasuko erabakia Konstituzioaren emendakinen bidez bertan behera uzteko saioek ez dute aurrera egin.

Beltzen
mugimendua

Auzitegien babesa eskatzen zuen gutxiengoen talde nagusia, beltzena zen. Auzitegietan beti izan dira arrazarekin lotutako auziak. Lider beltzek ez zuten *Plessy v. Ferguson* kasua (1896)⁷ onartzen, segregazioari legitimazioaren mozorroa ipintzen ziola. 1909an, *National Association for the Advancement of Colored People* (Beltzek Aurrera Egiteko Elkarte Nazionala-NAACP) sortu zen. Ia hasieratik, NAACPk litigazioa erabili zuen estrategia gisa, eta arrazen arteko berdintasuna lortzeko borrokatzen zen Auzitegietan. 1915ean, garaipen garrantzitsu bat lortu zuen: Auzitegi Gorenak Oklahomako Konstituzioko "aitonaren klausula" aplikatu zuen *Guinn v. U.S.* kasuan⁸ (Oklahomako 1908ko Konstituzioko 3.4A artikulua zera exigitzen zien bozkatzaileei: "Oklahomako Konstituzioaren edozein zati irakurri eta idazteko gai izatea", baina baldintza horretatik salbuetsi egiten zituen 1866ko urtarrilaren 1ean "edozein gobernu formapean bozkatzeko eskubidea" zutenak, "atzerrian bizi zirenak" eta hauen "ondorengo zuzenak". Horrek esan nahi du ia jende guztia zegoela salbuetsita, beltzak izan ezik, 1866 baino lehen ezin zutelako bozkatu).

1940tik aurrera, Auzitegi Gorenak argi eta garbi aldatu zuen auzilari beltzekiko jarrera. Hasieran, emaitza solte batzuk besterik ez zituen lortzen arrazismoaren aurkako

6. *Schenk v. United States*, 249 U.S. 47, 52 (1919).

7. 163 U.S. 537 (1896).

8. 238 U.S. 347 (1915).

borrokak. Auzitegi Gorena hainbat praktika inkonstituzional deklaratu hasi zen (Zuzenbide Fakultate segregatuak, adibidez), baina ez zuen atzean zegoen auzia argitzen; alegia, segregazioak –"bereizita baina berdintasunean" doktrinaren pean– Zuzenbidean inolako babesik ba ote zeukan. NAACP gogor borrokatu zen arren, Auzitegiak muzin egiten zuen; konpromiso hutsezkoak ziren bere erabakiak. Ia kasu guztiak beltzek irabazten zituzten, baina ez zen atzean zegoen arazoa konpontzen. Bigarren Mundu Gerraren garaian, Auzitegi Gorenak, akats larri bat eginez, uko egin zion jatorri japoniarra zuten hiritar amerikarrak gerran internatzea bertan behera uzteari. Erabaki honek, arrazismo eta histeria giroarekin nahasita, ilundu egin zuten Auzitegiaren ospea⁹.

Shelley v. Kraemer kasuan (1948)¹⁰, Auzitegia gehiago hurbildu zen segregazioaren arazoaren muinera, eta bertan behera utzi zituen, exekutaezinak zirela-eta, ondasunen beltzei saltzea edota alokatzea galarazten zuten hitzarmen lurraldetarrak. Berdintasunaren aldeko borroka luzea, halere, 1954an iritsi zen bere puntu gorenera, "Astelehen beltzean" Auzitegiak *Brown v. Board of Education* kasuko erabakia¹¹ eman zuenean. Ziur aski hau izan zen Auzitegi Gorenaren epai guztien artean erabakigarriena. Honen moduko beste epai bat bilatzeko, *Income Tax*, *Dred Scott* edota beharbada *Roe v. Wade* kasuetara jo beharko genuke. *Brown* kasuak eskola segregatuak behingoz debekatzea agindu zuen. Gaur egun, Iparraldeko zein Hegoaldeko beltz gehienak jende guztia edo gehiena beltza den eskoletara joaten dira, baina *Brown* kasuak izugarritzko eragina izan zuen eskoletan. Zeharka bazen ere, *Plessy v. Ferguson* kasuaren hil kanpaiak entzun zitezkeen. Geroko kasuetan askoz ere garbiago ikusiko zen Auzitegi Gorenaren asmoa. Aurrerantzean ez zen inolako segregazio motarik onartuko. Baina kasuak –*Dred Scott* kasuak bezala– eztabaida zurrumbilo batean murgildu zuen Auzitegia. Hegoaldeko zitalkeriak eta "erresistentzia masiboak" ez zuten Auzitegiaren jarrera aldarazi; ezer lortu bazuten, Earl Warren eta magistratuak beren premisa moralekiko ziurrago sentitzea izan zen. 1954az geroztik, Auzitegiak ez du puntu honen inguruan duen jarrera aldatu.

Segregazioaren inguruko epaiak

Segregazioaren inguruko kasuak eragina izaten zuten beltzen errebolta mugimenduetan. Kasu bakoitza ozeanoko ur tanta bat baino ez zen. Ezinezkoa da beren eragina neurtzea eta zehaztasun gehiegitan sartzea. Lerro hauek idazteko unean, mugimenduak oraindik ez du bere indarra galdu. Beste modu sinpleago batean esanda, 50. hamarkadaz geroztiko Estatu Batuen historiaren zati handi bat, zurien eta beltzen arteko harremanek hartu dute. Gatazka sozial nagusi guztiek (pobreziaren aurkako borrokak, zurien kontraerasoak, hirien eraberritzeak, eskoletako egonezinak, kaleetako delinkuentziak, etab.) dute eragina arrazen arteko harremanen inguruko eromen eta ustelekeria sortzen, konplikatuak eta okertzen. Zurien erreakzioa, beltzek eman duten aurrerapausoa bezain konplexua izan da. Gizartean dauden maila eta talde ezberdinek nahiko jarrera desberdinak hartu dituzte. Erreakzio honen adierazleetakoa bat, eskubide zibilei buruzko lege sorta berria izan da (1964, 1965), muturreko birreraikuntza ilunabar faltsurantz gertatu zenetik beste edozein lege baino bortitzagoa. Hoteletan, jatetxeetan eta zerbitzu publikoetan jada ez dago segregazioaren arrastorik, baina bai ordea –nahiz eta ez hain modu basatian– etxebizitza arloan eta enpleguan. Beltzek, gaur egun, hegoaldean zein iparraldean bozkatzen dute, asko dira bozkatzera hurbiltzen direnak, eta Atlanta, Chicago, Philadelphia eta Los Angelesko alkateak beltzak dira (1985).

Zurien kontraerasoa ere hortxe dago, eta ez da gutxiesteko modukoa. Beltzen azpiklasea izugarri handia izatearen ondorioz sortu da. *Brown* kasuak eta ondorengoek, eta eskubide zibilen aldeko mugimenduak, klase ertaineko beltzen askapena ekarri zuten, eta, orduetik, beltzek Metropolitan Opera-n abesten dute, beisbolean jokatu dute, eta Kongresura joaten dira; gutxi batzuk exekutibo edo bufeteetako kide bihurtzen dira, eta telebistako iragarki eta filmetan agertzen dira. Hori guztia garrantzitsua den arren, beltz gehienak behartsuak dira; oraindik ere zurien atzean daude alor guztietan. Legalki mintzatuz, "ekintza afirmatiboen" eta "alderantzizko diskriminazioaren" arazoak daude. Egoera puri-purian jarri zuen kasuetako bat, *Bakke* kasu ezaguna izan zen: Alan Bakke izeneko gizon zuri batek, Davis hiriko Kaliforniako Unibertsitateko Medikuntza

9. Kasu hauen azterketa sakon –eta depresibo– baterako, ikus Peter Irons, *Justice at War: The Story of the Japanese-American Internment Cases* (1983).

10. 334 U.S. 1 (1948). Kasu honi buruz, eta NAACPk Eskubide Zibilen aldeko mugimenduan oro har izan zuen paperari buruz, ikus Clement E. Vose, *Caucasians Only: The Supreme Court, the NAACP, and the Restrictive Covenant Cases* (1959).

11. 347 U.S. 483 (1954).



Fakultatetik bota izanaren aurka jo eta irabazi egin zuen, zuria izanik kalte egin zitzaiola argudiatuz. Ez dago oso garbi kasu horrek zer erabaki zuen (*Regents of the University of California v. Bakke*, 438 U.S. 265, 1978), baina argi dagoena da zuri batzuek –gehienek?– ez dutela gustuko eskubide zibilen aldeko iraultza. Aurrerapena benetan ari da ematen, baina amorrua eta erreakzioa ere benetakoak dira. Hori, legearen eta ordenaren aldeko mugimenduekin lotuta dago –delinkuentziaren arazoa ere guztiz erreala den arren–. Suburbioetara jotzea ere erreakzio bat da, eta baita ongizate programei gero eta fama txarragoa ematea ere; programa hauetako gehien-gehienak, gainera, beltzei zuzentzen zaizkie. Honek guztiak *Brotherhood Week*¹²-ek bezainbesteko garrantzia du zuriaren erreakzioan, edo gehiagoagian.

Zuzenbidearen erreforma eta baterakuntza: marfilezko dorrea

Zuzenbidea
erreformatzeko
mugimendua

“Zuzenbidea erreformatzeko mugimendua”, zentzu hertsian, huskeria bat da eskubide zibilen aldeko iraultzako gertakizun garrantzitsuekin eta Zuzenbidearen egiturari nahiz edukian izan diren aldaketa masiboekin alderatuz gero. Modu epel eta orokor batean bada ere, honek arrazionalismoaren bidetik jotzea eta zuzenbidearen aniztasunetik ihes egitea ere azaltzen du. Zuzenbidearen erreformak ezergatik aipatzea merezi badu, erreforma horrek legelariarentzat duen garrantziagatik baino ez da. Abokatuen elkargoek eta legelari akademikoek uniformitatearen, Zuzenbidearen kodifikazioaren, legedien konsistentziaren, ordenaren eta abarren alde borrokatzen jarraitu zuten XX. mendean zehar.

Antza denez, Zuzenbidea erreformatzeko mugimendua XIX. mendeko ametsik pentsaezinenak egia bihurtzea lortu du. Baina horrek ez gintuzke harritu beharko.

“Zuzenbidearen erreforma”, abokatuek ematen dioten zentzuan, lantaldea babesteko hartutako neurri bat da. Lanbidearen elitearen ezaugarri diren laguntasun eta adiskidetasunari erantzuten die batik bat. Legelarien kopurua izugarri handitu zen XX. mendean zehar –80eko hamarkadan 600.000 pertsona inguruk zihar duten abokatutzan–, eta, ohi bezala, eztabaidak sortzen ziren bere baitan. Lanbideko liderrek –bereziki Wall Street-eko eta Washingongo abokatuek– nostalgiaz begiratzen zieten abokatutzaren urrezko urteak direla koei, hau da, behe mailako atzeritarrek, anbulantziatan eramaten diren bezero potentzial zaurituen atzetik dabiltzanek, dibortzioan espezializatutako abokatuek eta antzeko jende marginalak osatutako multzoak beren ospea zikindu baino lehenagoko garaiei.

Abokatutzaren
ospea
berreskuratzeko
asmoa

Abokatuek, interes publikoa babesten jarraitzen zutela erakusteko erreformatu zuten Zuzenbidea. 1870etik aurrera, Zuzenbidearen erreforma abokatutzaren egitura ofizialari lotuta egon da. Abokatuen elkargoak garatze bidean zeuden garai hartan, eta XX. mendean handitzen joan zen beren garrantzia, nahiz eta sekula ez ziren Ameriketako Medikuen Elkargoak zuen botere mailara gerturatu ere egin. Mende hasieran sortutako *Conference of Commissioners on Uniform State Laws* (Zuzenbide Estatal Uniformearen Komisionatuen Konferentzia) nazionalaren eta *Association of American Law Schools*-en (Zuzenbide Fakultate Amerikarren Elkarte) helburua, Zuzenbidea erreformatzea eta lanbideak bere interes eta ospea berreskuratzea zen. Abokatuen elkargoaren eskariz, *American Law Institute* (Lege Institutu Amerikarra) legedi uniformeak prestatzen hasi zen XIX. mende bukaeran, eta dezente egin zituen XX. mendean zehar.

Garrantzitsuenetakoa *Uniform Sales Act* (1906) izan bazen ere, guztiak ziren garrantzitsuak. Konferentziak beste araudi gehiago ere sortu zituen interes orokorrari begira, hala nola *Uniform Flag Act* (1917) –bandera amerikarra desitxuratzea, zikintzea, desafiatzea edo zapaltzea debekatuz– eta *Uniform Simultaneous Death Act* (1940). Bigarren Mundu Gerraren ondoren, *Uniform Commercial Code* (1950 ingurukoa) izan zen uniformetasunaren alde egindako ekarpen nagusia, Karl Llewellyn izanik bere aita intelektual nagusia. Kode honek merkataritza arloan zeuden legediak bateratu eta hobetu zituen –teorian–, eta salmenta, faktura, handizkako erosketak, biltegi-takako erreziboak, ontziratze-ko agiriak eta transakzioei buruz zeuden legedi zaharrak berriro –arloan hauetariko askoren inguruan legedi “uniformeak” ere sortu ziren–.

Merkataritza Zuzenbideko aditu nagusien ia belaunaldi oso bat egon zen Kodean interesatuta. Hasieran prestatu egin zuten, gero bere aldeko presioa egiten hasi ziren,

12. *Brotherhood Week* delakoa, urtean behin kausa on bati zuzentzen zaion aste bat izan ohi da (itzultzailearen oharra).

eta ondoren bere funtzionamenduari buruz idazten hasi ziren. Ahalegin handiak egin behar izan zituzten legegileei Kodearen komenientzia ikusarazteko, hauek ez baitzuten Kode baten beharra zutenik pentsatu ere egiten. Kodea onartu zuten lehenengo Estatuak Pennsylvania (1953) eta Massachusetts (1957) izan ziren, eta gainerako Estatuak hainbat urte gorabeheratsuren ostean onartu zuten. Bai neurriaren, bai edukia- ren aldetik, Kodeak erabateko haustura suposatzen zuen iraganarekiko. Ordura arte, Merkataritza Zuzenbide amerikarra pieza solte bat besterik ez zen, aldaxken multzo bat. Hala ere, Kodea ez zen iraultzaileegia izan. Bitxia dirudien arren, nolabait modaz pasata zegoen. Arazo “juridikoak” baino ez zituen konpontzen; alegia, doktrinan zeuden ezados- tasunak, kasu eztabaidagarriak eta gustuko ez ziren araudiak. Kodegileen iritzian, auzite- giek eta legegileek ez zuten ulertzen merkatariek benetan zer behar eta pentsatzen zuten. Azken puntu hau azpimarratzeko modukoa da, Kodean bi ideologia konbinatzen direla adierazten duelako. Ideologia bat kodezaleena zen: sistematikoa, ordenatua, logi- koa eta uniformatua, eta bestea, berriz, negozioen zerbitzura lan egiten zuten merkata- ritzako legelariena. Baina lehenengo ideologia zen gailentzen zena. Kodearen egileek ez zuten enpresek zer behar zuten edo nola jokatzeko zuten jakiteko ikerketa enpirikorik egin, eta proiektuaren oinarrian ere ez zegoen negozioek zer behar zuten azaltzen zuen teoria ekonomiko koherenterik. Wall Streeteko legelari eta enpresari batzuei beren iritzia eskatu zitzairen, baina ez zen aztertu Merkataritza Zuzenbideak negozioei eta gizarteari zegokienez zer konpondu behar zuen —ezer konpondu behar izatekotan—. Nolanahi ere, Kodea gogorra izan zen erregionalismoarekin. Herejiatzat jotzen zen Estaturen batek Kodearen edukiarekiko salbuespen bat eskatzen zuen interes ekonomiko edo sozialik izan zezakeela pentsatzea, eta, hori dela-eta, interes horiek ez ziren inolaz ere onartzen. Beste alde batetik, apenas hartzen zituen kontuan negozioen mundutik kanpo zeudenen interesak (langile edo kontsumitzaileenak, esaterako). Baina kontu honi ez zaio garrantzi handiegirik eman behar. 1960ra arte, legelariak ez zuten izan behartsuen eta kontsumi- tzaileen arazoketako interes akademikorik, eta Kodea, goraino botoiez josita zeuden oine- taakoak bezain gauza arraro eta modaz pasatakoa iruditzen zitzairen. Zuzenbidean adituen, Zuzenbide fakultateen eta Wall Streeteko abokatuen arteko maitasun festa baten ondorioa zen, eta kontra azaltzen ziren bakarrak aldaketa txikienari ere uko egiten zioten abokatu zaharrak ziren.

Nolanahi ere, Kodea oso modernoa zen gainerako legediekin alderatuz. Baliteke jurisprudentzia kontzeptualaren adierazpen gorena izatea. 1920an hasi ziren prestatzen, 1923an sorturiko *American Law Institute*-ren gidaritzapean. Proposatzaileek ez zuten legedia kodifikatu nahi; beraiek sintetizatu egin nahi zuten, eta *Common Law* salbatu, bere printzipioak modu xume eta sistematikoago batean jasoz. Horren guztiaren ondo- rioa planteamendu berri bat izango zen, ez legedi berri bat. Epaila eta irakasleak ardura- tu ziren *Common Law*-ren esparru nagusiak laburbiltzeaz: kontratuak, *trust*-ak, jabetza, kalteordainak, bitartekaritza, korporazioak, lege gatazkak, etab. Indarrean zegoen Zuzenbidea hartu zuten, bere haragia egosi, odola xurgatu, eta hezurretan utzi zuten. Hezur hauek printzipioa, arauak (idatzitako xedapenak) eta iruzkin antzu batzuk. Lehenengo planteamendua, kontratuei buruzkoa, 1932an amaitu zuten, eta, funtsean, arauen ondorio sozial edo ekonomikoetan oinarritzen zen. Gaia jorrazteko modua, oroko- rrean, guztiz logikoa zen, ordena ipintzea eta desordenarekin amaitzea baitzen helburua —ugaritu egin ziren ildo honetatik kanpo zeuden Auzitegiak, *Common Law*-ren korrontera itzuli zirenak—. Kodearen egile nagusiek, Harvard-eko Samuel Williston eta Austin W. Scott bezalako gizonak, planteamendu ugari egin zituzten Langdell ildoari jarraituz. Pentsamendu juridikoaren beranduagoko korronteei jarraitzen zieten legelari gazteen ikuspuntutik antzua dirudien proiektu batean azaldu zuten beren talentua. Gezurra badi- rudi ere, planteamendu berriak egiten jarraitzen dute.

Zuzenbidea erreformatzeko XX. mendeko mugimendu honek ondorio sozial txikiak izan zituen. Funtsean, arlo juridikoak “erreformatu” ziren. Teorian, interes publikoagatik ekin zitzaion erreformari, baina praktikan, ordea, apelazio kasu gutxi batzutatik etorri zen erreformatzeko beharra, logika eta konsistentzia arazoak zeudelako. Inoiz edo behin, jakina, egon zen interes publiko intzidentalik ere. Eta *egitura* judizialak erreformatu zire- nean —New Jersey-n Arthur Vanderbilt-en gidaritzapean egin bezala—, ziur dibidendo sozial errealik egon zela. Planteamenduak baino beranduagoak ziren eta eredutatz hartzen ziren kodeak sofistikatutakoak ziren. Kode Penalaren ereduaren egileak, behin- tzat, konturatzen ziren gaiak gizartearentzat zenbateko garrantzia zuen, eta kontuan har- tzen zuten gizartearen ahotsa. Baina kode moderno eta uniformeak, orokorrean, gozoegiak ziren, eta, onenera, egoera apur bat hobetzen zuten. Mendebaldeko Estatuak onartutako Oinordetzaren Kode Uniformeak oinordetza prozesuari ospe txarra ematen

zioten zenbait atal derogatu zituen arren, ez zuen ukitu oinordetza sistemaren muina, legelari gazte gehienen –eta herritar batzuren– iritzian anomalia garesti eta arkaiko bat izan arren.

1960ko hamarkadan, estilo berri bat hartu zen Zuzenbidea erreformatzeko. Eskubide zibilek, Vietnamgo gerrak, pobreziaren aurkako borrokak, kutsaduraren eta biztanleriaren inguruko kezkek, eta unibertsitateetan arnasten zen egonezinak bor-bor ipini zuten adrenalina Zuzenbide fakultateetan eta hainbat abokaturen artean. Beti egon da legelari ezkertiarrez osatutako gutxiengo bat, sozialki konprometitua eta inoiz erradikala ere izan dena, baina oraingoa desberdina zen, bai ardurengatik, eta bai finantzengatik. Lyndon Johnson-en administrazioak abokatu batzuk hartu zituen pobreziaren aurka egiteko –Gobernuak ordainduta–, bezero behartsuei beren etsaien aurka borrokatzen laguntzeko –sarritan Gobernu bera izaten zela etsai hori–. Pobreziaren aurka borrokatzen ziren legelariak sistemari presio egiten aritzen ziren, ahalik eta aldaketarik handienak eragiteko.

Hau guztia, nolabait, bigarren korrante bat zen. 1930eko *New Deal*-en garaian bertan ere, legelariak ikuspegi berri batekin ateratzen ziren Zuzenbide fakultateetatik, gizartea garatzeko eta mailaz igotzeko asmoarekin. Elkarrekin, Washingtonera abiatu ziren, Roosevelt sozietatea eratzeko. Beren interesak sustantiboak ziren gehienbat –ez Justiziaren Administrazioa, ekonomiaren administrazioa baizik–. 1960ko erradikalak ere muinean zeuden interesatuta, noski, baina ikuspegi berezi bat zeukaten justiziaren inguruan, boterea eskuratzeko modu gisa ikusten baitzuten. Zuzenbidea erreformatzearen aldeko abokatuen mugimenduak bat egin zuen lanbidetik kanpoko mugimendu sozialarekin. Biek legearen aurreko berdintasun formalak baino zerbait gehiago eskatzen zuten, biak zeuden Ameriketako Zuzenbideko eta bizitzako pluralismo bertikalaren aurka, eta, gainera, biak oso kezkatuta zeuden justiziaren bide eta prozedurekin.

Baina legelari aktibista guztiak ez ziren Gobernuarentzat lanean ari. Batzuk interes publikoko bufeteetan aritzen ziren. Sierra Club-etik, NAACPren zergadunengandik eta antzekoetatik lortzen zuten dirua. Milioi erdi kide baino gehiago zeuzkan lanbide bat izanik, oso gutxi ziren inplikaturak zeudenak, ehunka batzuk baino ez. Baina talde txiki honek erronka handi bat hartu zuen beregain, handiegia batzuren ustez. Talde honetako kide gehienak legelari publikoak ziren. Eta arriskuan zeuden. Segundu bakar batean fondo guztiak ken zitezkieketen. Boterea zeukaten interesdunek ez zuten batere begi onez ikusten legelari hauen jarrera. Bereziki, Ronald Reagan izeneko Kaliforniako gobernadore bati molestak zioten. Hau presidente izatera iritsi zenean, beren programa deuseztatzen saiatu zen, baina Kongresuak ez zion horrelakorik egiten utzi. Hala ere, errotik murriztu zizkien fondoak. Oraindik ikusteke dago programak epe luzera bizirik jarraituko ote duen.

Zuzenbidearen hazkundea

XX. mendean azkar eta etengabe aldatu zen Zuzenbidea. Aldaketa garrantzitsuenetariko batzuk aipatu ditugu jada (esate baterako, Zuzenbide Administrazioaren hazkundea); beste batzuk, gehiegi direnez behar bezalako sakontasunez aztertzeko, gaineratik aipatu baino ez ditugu egingo.

Lurraren
erabilerari
buruzko
Zuzenbidea

Zuzenbide lurraldetarrari dagokionez, XX. mendea lurraren erabileraren gaineko kontrolarena izan zen. Hitzarmen murriztaileak eta *Common Law*-ko doktrina ez ziren hiri handiak aldarazten ari ziren indarrei eusteko gai. XX. mendea zonifikatzen saiatu zen. Eremu zabaletarako ordenantzak sortu zituen lehenengo hiria New York izan zen (1916)¹³; geroztik ia ohitura unibertsala bihurtu zen hirietan lurra erabiltzeko Zuzenbidea zonifikatzea. Planak eta kontrolak egiten ziren hirien hazkundea kontrolatzeko, auzoen izaera mantentzeko, lurraren balioaren beharrekadak ekiditeko eta merkatuko lege gogorrek orekatzeko. Horietatik ziren gizartearen helburuak. Zonifikazioa, erdi mailako taldeen interesak eta, neurri batean, enpresariarenak, defendatzen zituen tresna sozial bat zen.

Orokorrean, errenta segregatzeko ohituragatik ziren ezagunak lurraren erabileraren gaineko kontrolak. Aberatsak aberatsen eremu txikietan biltzen ziren, eta behartsuak

13. Ikus Roy Lubove, *The Progressives and the Slums* (1962); 229-45 orr.

behartsuen eremuetan. Guztiz normala zen hori. Arazoak, ordea, bien arteko mugetan sortzen ziren. Lehenengo Mundu Gerra amaitutakoan, nekazari beltzak iparraldera joaten hasi ziren, lan bila, baina Bigarren Mundu Gerraren ostean mugimendu hau uholde modukoa bilakatu zen. Zuriak, orduan, beldurrak jota, lurraren erabileraren gaineko kontrolak indartzen hasi ziren. Programa federalek –hiriak berritu eta birgaratzeko 1949tik aurrera, eta Hiri Eredugarriak 60ko hamarkadaren bukaeran– apenas izan zuten eraginik hirietako segregazioan. Lurjabe lokalei ematen zitzaizkien emakidak izaten ziren. Hiri eta auzo bakoitzak bere politika egiten zuen. Zuriak sekula ez zuten integrazio zabal baten aldeko planik onesten. 1948an *Shelley vs. Kraemer* kasuak legez kanpo utzi zituen hitzarmen murriztaileak, eta 1949an Hiri Birgaratzeko Plana onartu zen. Ezin esan bi gertakariak zuzenean lotuta zeudenik, baina batetik ateratako energia bestera igaro zen. Beltzak eta behartsuak ezin baldin baziren auzo batetik zuzenean bota, kanpaina suntsitzaile baten bidez zeharka egitea zen irtenbiderik onena.

Bi egitasmo erreformista garrantzitsuk Birgarapenaren eta bere bilakaeraren sustapena ekarri zuten: errenta baxua zutenentzako etxeek, eta hiri eder batean bizitzearen ametsak. Egitasmoen eragina ezberdina izan zen, eta ez oso ona gainera: auzoak aztoratuta zeuden, eta txabolak etengabe ari ziren hirian zehar zabaltzen. Hiri, aurrera beharrean, atzera egiten ari zen. Bandak beltzek, erradikalek eta –noizbehinka– lurjabe zuriek osatzen zituzten, eta arriskua beren etxera hurbiltzen ari zela ikusten zuten. Birgarapenaren hasiera-hasieratik, proiektu partikularren aurkako protestak egin ziren. Ohitura amerikar zaharrari jarraituz, batzuek auzitegietara jo zuten. 50eko hamarkadan, auzitegiek atzera bota zituzten objektio guztiak. Hitz gutxitan esanda, bi gauza esan zituzten auzitegiek: batetik, agintariek gehiago zekitelat¹⁴, eta bestetik epaileek ezin zutela agintari ohoretsuen erabakietan esku hartu.

60ko hamarkadan kasu gehiago eman ziren: epaile batzuek beste pentsamolde bat agertu zuten, hainbat etxeoandre zuhaitzetara lotu ziren publizitatea lortzeko, eta Washingtonen bosteko asko eman eta panfleto ugari banatzen ziren. Obedientzia eta konplazentziaren gainbehera orokorra hirien berrikuntzara ere iritsi zen. Berrikuntza honetatik etekinak lortzen zituzten indar ekonomikoak indartsuak ziren oraindik ere, baina arerioak ere bai. Plangintzen aldekoek gero eta handiagoa zen mugimendu kontserbatzailearen aurka lehiatu behar zuten, eta hiriaren gainbeheraren arazo sozialak interes apur bat galdu zuen. Une horretan, arazo sozialik berrienari egin behar zion aurre, interesa berreskuratu nahi bazuen: gizatasunaren eta ingurumenaren arazoari.

Aspaldikoak ziren airearen eta uraren kutsaduraren arazoak. Hiriak sortzen zuen itolarriaren eta pairatzen ari zen gainbeheraren sintometako batzuk ziren. Betidanik egon ziren alderdi horiek salatzen zituzten ahotsak, baina 1960tik aurrera ozenago entzuten hasi ziren. Hondamendiaren sentsazioa hasi zen zabaltzen. Esparru desberdin asko atxiki zitzaizkion mugimendu ekologikoari. Batetik, hazkunde ekonomikoak –azken batean nahi adina salgai zeuzkan gizarte batean– jada ez zuelako jende guztia asetzen, dirua eduki arren barne bakerik ez zuen jendea bereziki. Bestetik, krisia benetakoa zelako. Baliabideak ez ziren infinitoak. Lantegi handiak ibaiak pozointzen eta airea bezten ari ziren; egur konpainiak zuhaitz ordezkazekin botatzen ari ziren; hiriak toneladaka zabor ari ziren laku eta ozeanoetara jaurtitzen; autopisten ingeniariak Ameriketako bihotz eta ondare ziren lurraldeetan barna ari ziren bideak zabaltzen. Merkatuaren esku ikustezinaren ikuspegitik, “aurrerakuntzaren” eta erakunde publikoen bertute eta zereginekiko fede itsu batek soilik justifika zezakeen libertinaje hau guztia. Eta fede mota hau deseroso samar ari zen bihurtzen. Hirugarren, gizartearen pertsona aberats eta ezagun asko zeudelako, profesional eta burokratez inguratutako gobernu eta gobernari handiak, eta eguzki bila zebiltzan gero eta adademiko eta intelektual gehiago zeudelako. Interes talde hauek guztiek –zilegi da hala deitzea– konzientzia zeuzkatenez, zergati batzuk behar zituzten. Gobernuaren tamaina interes nazionala asetu nahiak bakarrik justifika zezakeenez, zergatiak behar zituen. Gobernu bakoitzeko sail guztiek izan behar zuten sozialki erabilgarria izango zen programaren bat. Akademikoez eta goi mailako jendeak, kontsumitzaileak izanik, beren interes propioak zeuzkaten jokoan, eta soberan zeuzkaten denbora eta dirua gastatzeko moduen bila zebiltzan. Askok seiluen bilduma egiten, Txinan girotutako istorioak idazten, antzinako objektuen dendak ikusten, mozkortzen eta abar zebiltzan bitartean, beste batzuk ingurumenaren krisiaz jabetu ziren. Neurri batean,

Ingurumenaren arazoak

14. Jatorrizko testuan, “papa knows best”; alegia, aitatzok dakiela inork baino hobeto (itzultzailearen oharra).

bazen garaia. Ondorioz, nolabaiteko boterea zeukan interes talde horrek –neutralak mobilizatzeko boterea, batez ere– 60ko hamarkadaren ezaugarri izango zen arazo bate-rantz zuzendu zituen bere indarrak. 60ko hamarkadaren bukaerarako, isildu egin ziren hainbat arazo (beltzek, adibidez, zakarki jokatu zuten; eskerrak justu-justu eman zituzten beren liberazioagatik).

Elikagai
garbien aldeko
mugimendua

Mugimendu ekologikoarekin, kontsumitzaileen interesak indartzen hasi ziren. Gizartearen legeak oraindik ere interes taldeen borroka eta konpromisoetan zeuden oinarri-tuta, baina kontsumitzaileek, lehenengo aldiz, interes talde bat osatzen zuten, eta hori Zuzenbide publiko eta pribatuaren hainbat arlotan islatu zen. Horren ondorio nagusietako bat, produktuen gaineko erantzukizuna handitzea izan zen. Erantzukizun horrek, hein bate-an, *caveat emptor* printzipiotik ihes egiten jarraitu zuen. Ihesaldi horrek, XX. mendean, Gobernuari ordura arte baino gehiago interbenitzea eskatzen zion. Auzi pribatuek garesti eta deseroso samarrak izaten jarraitzen zuten. Ondorioz, legeriak ekoizle eta prozesatzaileak egin zituen erantzule. 1906an, elikagai eta sendagaiei buruzko lege federal bat onartu zen. Lege hori onartu baino lehen, borroka berezi samar bat izan zen. Belaunaldi oso bat elikagai garbien aldeko mugimenduan sartuta egon zen. Upton Sinclair-en *The Jungle* liburuak bultzada erabakiorra eman zion mugimendu horri. Irakuleei ia botagurea sartzen zitzairen beren janariak lizunduta zeudela, beren saltxitxetan arratoi puskak zeudela, latetan zetozen elikagaietako azido eta espezieak usteldurak disimulatzeko zirela, eta, okerrera, beren urdaiak kanibal bihur zitezkeela pentsatze hutsarekin. Sinclairrek Chicagoko “behikien monopolioen esklaboen” oinazearen berri emateko idatzi zuen liburua¹⁵. “*Jendearen bihotzera iritsi nahi nuen*”, adierazi zuen jada ezagun egin den esaldi batean, “... eta urdai-lera iritsi nintzen”. Ondo iritsi ere. Sortu zen iskanbilarekin, ia erdira jaitsi zen haragiaren salmenta. Bere liburuak sentimenduek eta sozialismoak baino eragin handiagoa izan zuen elikagaien industrian. Elikagai garbien aldeko legedi batek jendeari haragiekiko eta elika-gaiekiko konfiantza itzultzeko balioko baldin bazuen, orduan merezi zuen araudi bat egitea, behintzat marka ospetsuen kasuan.

1906tik aurrera ere jarraitu zuen elikagai eta sendagaien inguruko gai konplexua-ren inguruko iskanbilak. 1937an, ehun pertsona inguru hil ziren –haurrak gehienak– “Elixir Sulfanilimide” hartuta. Konpainia farmazeutiko batek pozoin hilgarri bat zen senda-gai zoragarri berria egoera likidoan merkaturatzeko ideia bikaina izan zuen. 1938an, legediak FDA (Botikaren Bulego Federala) indartu zuen, eta derrigorrezko frogak gaindi-tu arte sendagairik ez merkaturatzeko agindu zuen¹⁶.

Heriotza horien ondorioz, aire eta ur garbiaren aldeko lege estatal eta federalak bultzatu ziren. Ingurumenaren babesa herriari zegokion gai bat zela zirudien, eta hala izaten jarraitzen du. Baina atzerakada bat gertatu zen 70eko hamarkadaren amaieran eta 80ko hasieran. Urrutiegira iritsi ote zen pendulua? Desagertzeak zeuden arrain txiki batzurenagatik, zorri –edo dena delako– batzurenagatik edota arriskuan zegoen zizare batengatik behera egin behar al zuen ekonomiak? Eztabaida gehienak EPAren eta bere funtzioen ingurukoak ziren, eta hala izaten jarraitu dute, baina guztiak jende gehiena bere alde zegoela erakusten zuten.

FDAk, EPAk eta beren jarraitzaileek helburu bat zeukaten: ekonomistek “esternalitate” deitzen zutena kontrolatzea; hau da, aktoreen zirkulu txikitik kanpo kostu eta zergak inposatzen dituzten akzio pribatuen ondorioak kontrolatzea. Jakina, inor ez da isolatuta bizi, eta beraz jarrera guztiek sortzen dituzte ondorioak; muga non ezarri da kontua. New Yorken, gidariak segurtasun gerrikoa eramatera behartuta daude (1984). Batzuk hori interbentzionismoa eta diktadura zela oihukatzen hasi ziren. Nolanahi ere, errepidean gertatzen diren istripuek gidariak gain jende gehiagori eragiten diote, eta segurtasun gerrikoek ondorioak arintzeko balio baldin badute, nahikoa arrazoi da hori gerrikoa ipin-tzeko. XX. mendean zehar gizartearen zehar izugarri hedatu da istripuen legedia.

Laneko
istripuen
araudia

Batetik, laneko istripuei dagokienez. Ikusi dugun bezala, 1900 inguruan langileen legedia ez zen oso ona. Krudela izateaz gain, konplexu samarra zen. Ez zituen istripu industrialetako kostuak eraginkortasunez estaltzen. 1906an, Ugazaben Erantzukizunaren

15. Upton Sinclair, *American Outpost, a Book of Reminiscences* (1932); 154. or.

16. James Harvey Young, “Three Southern Food and Drug Cases”, 49 J. Southern Hist. 3 (1983).

Araudi Federala onartu zenean¹⁷, Kongresuak atzera bota zuen trenbideetako langileen legedia. Estatu askok ere ez zuten araudia onartu, eta 1900 eta 1910 artean eztabaida eta tentsio uneak sortu ziren konpentsazio planen inguruan. Estatu Batuetako industria kontra zegoen, baina aurkakotasun hori txikitzen joan zen pixkanaka. Litigazioak eta istripuen aseguruak oso garesti ateratzen zitzaizkion industriari. Ba al zegoen konpentsazioak zergapenari zama handiegia ez ezartzeko aukerarik? Posible al zen langileek zuzenean diru gehiago jasotzea, eta parasito, abokatu eta bitartekariak gutxiago? Agian horrelako plan batek bake industrialak ere ekarriko zukeen. Europako Estatuek –Ingalaterrak eta Alemaniak batez ere– langileen konpentsazio sistema ezarri zuten, eta ez zitzaizkien horregatik zerua gainera erori. New Yorkek 1910ean onartu zuen konpentsazioari buruzko araudia, baina inkonstituzional deklaratu zuten. Wisconsin izan zen onartu zuen hurrengoa (1911), eta ez zuen inolako arazorik izan. Ondoren, epaileek New Yorkeko legedian onartezin deklaratu zituzten puntuak baztertu, eta beste hainbat Estatuk onartu zuten. Auzitegi Gorenak, geroago, konstituzional deklaratu zituen ohikoak ziren plan mota gehienak. Mississippi izan zen, 1948an, konpentsazio plan bat onartu zuen azken Estatuak.

Langileen konpentsazio sistema, konpromisozko sistema bat zen. Alderdi bakoitzak puska bat ematen zuen, eta puska bat jasotzen. Langilea lanean lesionatu zenean ugazabaren aldetik neglijentziarik egon bazen, horri zegokion konpentsazio bat jasoko zuen¹⁸. Abolitu egin zen adiskidantzaren erregela. Eta baita ere arriskuak asumitzearen doktrina. Ez zuen axola langileak arretaz jokatu zuen edo ez; bere jarrera benetan desegokia izatean edota mozkorra egotean salbu, Estatu gehienek onartu egiten zuten konpentsazioa. Bestalde, legez finkatu zen ugazabak langileari ordaindu beharreko kopurua. Langileari gastu medikuak estaliko zitzaizkion, eta soldataren ehuneko zehatz bat jasoko zuen, baina muga batzuen barnean betiere. Wisconsinen, 1911n, ezgaitasun absolutua zeukan langile batek bere soldataren %65 jaso zezakeen bere ezgaitasunak zirauen bitartean, muga bere urteko irabazien batezbestekoaren laukoitza izanik. Ez zegoen gehiago emateko prest¹⁹. Araudiek, normalean, “behin betiko ezgaitasun partzialaren” kasurako kopuru zehatz bat ere finkatzen zuten: hainbeste astetako konpentsazioa hatz, behatz, begi, hanka edo beso batengatik. Langileak ezin zuen hori baino gutxiago jaso –baina gehiago ere ez–, eta ez zuen auzitegiatarako joko. Errekuperatzen zen artean, gainera, ez zeukan beste aukerarik. Ugazabak pozik zeuden egoera horrekin.

Langileen konpentsazio sistemarekin, istripuen jurisprudentzia jarria amaitu egingo zela pentsatzen zen. Orokorrean, oso ongi funtzionatu zuen. Inolako arazorik gabe konpontzen ziren lan istripu kasu gehienak, litigatu gabe, komisio eta pentsioen bidez. Baina araudi berritik sistemaren defendatzaile nagusiak harrizta eta atsekabetuta utziko zituzten aferak ere sortu ziren. Kasu berriak, erantzukizuna araudia proposatu zutenek pentsatu ere egiten ez zuten puntuetara zabaltzen saiatu ziren. Gaur egun, zenbait Estatutan, lanean ari zela bihotzekoak eman zion langilea errekeratu egiten da; lankidearekin hitz egiteko lepoa biratu duen idazkariak soldata jasotzen jarraitzen du... dozenaka kasu daude konpainiaren festa edo pik-niketan izandako istripuekin lotuta. Neurri batean, espero zen erantzukizuna horrela hedatzea. Jendeak jasan behar izaten dituen larritasunak, zenbait kasutan, epaile eta administratzaileen bihotza ukitzen du. Gainera, gaur egun jende gehiago aritzen da bulego eta zerbitzuetan lanean, obretan baino. Orain *beraiena* da araudia, ongizate estatuaren tresna hori. Nazioak segurtasunari buruzko araudi orokor bat onartu behar du, puntu nagusietatik txikietarainoko guztia jasoko duena, eta esparru txikiak, edo erakundeei zuzenduko zaizkie, edo “interes bereziko taldeek” bereganatuko dituzte. Ikuspegi honetatik azter daiteke konpentsazioari buruzko araudietako erantzukizuna.

Beste hainbeste esan daiteke langileen lesioei dagokienez. Akatsak dituen arren, langileen konpentsazio sistemak oinarrizko helburuak bete ditu. Kalteordainen Zuzenbidea, bien bitartean, erabat aldatu da. 1920tik aurrera, automobilak gero eta presentego egon da Zuzenbidearen arlo honetan. Ulertzeko moduan esanda, kalte pertso-

Kalteordainen
Zuzenbidea

17. 34 Stats. 232 (1906ko ekainaren 11koa). Araudiak arazo konstituzional batzuk zeuzkan. Antza, Gobernu federalak babes zitzakeen langileak baino gehiago babesten zituen. Hala adierazi zen Patronoen Erantzukizunari buruzko kasuetan, 207 U.S. 463 (1908). 1908an onartutako legedi berri batek, 35 Stats. 65 (1908ko apirilaren 22koa), konpondu zuen arazoa.

18. Neglijentzia kontributzailearen kontzeptua abolitu egin zen, baina laneko jarrera desegoki mota batzuek konpentsazioa jasotzeko eskubidea kentzen zituen langileari.

19. Laws Wis. 1911, 50. at.; 46-47 orr.



nalen arloan ziharduten abokatu gehienak automobil istripuen kasuetan aritzen ziren lanean, eta kasu horiek ziren kalteei zegokienez auzitegietan ohikoena. 50eko hamar-kadan, gainera, errepideetako istripuak auzitegietako kasuen %40 izatera iritsi ziren zen-bait Estatutan, eta gehienetan aseguru konpainiak izaten ziren ordaintzen bukatu behar izaten zutenak. Kalte pertsonalen arloko abokatuen elkargoek honorario kontingenteen sistema erabiltzen dute, eta kalteordain batzuk oso handiak izaten dira. Baina auziak dirua kostatzen dira, eta gatazka gehienak auzitegietatik kanpo konpontzen dira. Legelariak konpentsazio sistema mota bat finka dadila iradoki dute, baina ez da gauza handirik egin horri dagokionez. Langileen konpentsazio sistema egoera bilateral batetik sortu zen: alde batean langileen talde bat zegoen, eta bestean ugazaben talde bat. Jende guztia ibiltzen da automobileraz, eta gehienek ontzat ematen dituzte gaur egungo aseguruak. Hegazkinetako aseguruarekin gertatzen den bezala, gero eta aukera gehiago daude aldaketak egiteko. "Kulparik gabeko" sistema Massachusetts-en onartu zen lehenengoz. Kalte pertsonalen abokatuentzat onuragarria izan ez bazen ere, oso aurrera-pauso handia izan zen.

Kalteordainen Zuzenbidearen eguneroko ogia automobil istripuak diren arren, aldaketarik handienak 1900 baino lehen ia existitu ere egiten ez ziren arloetan eman dira: produktuengatik erantzukizunean eta akats medikuetan. 1916an, New Yorkeko Benjamin Cardozo epaileak bide berri bat zabaldu zuen *MacPherson v. Buick Motor Co.* kasuan²⁰ hartutako erabakiarekin. Epaia horren bidez, aldatu egin zuen Kalteordainen Zuzenbideak zeraman ildoak. Aipatutako kasuan, "egoera txarrean zegoen materialez" egindako gupil bat "erabat txikitu zen", eta zauri larriak eragin zizkion MacPherson jaunari. Cardozoren aburuz, egoera txarrean zegoen automobilaren erosleak fabrikatzailea zuzenean auzitara eramateko eskubidea zuen, eragindako kalteengatik. Baina eragozpen tekniko bat zegoen, ez baitzegoen "konfiantzazko" nahiz zuzeneko harremanik demandantearen eta demandatuaren artean. MacPhersonek ez zion automobila Buicki erosi; kontzesionario batean erosi zuen, eta beraz, aurrekariaren zuzenbidearen arabera, kontzesionarioa baino ezin zuen demandatu. Baina Cardozoren epaitegiak akzioa fabrikatzailearen aurka tarteratzeko bidea zabaldu zion MacPherson jaunari. Fabrikatzaile baten produktua arriskutsua denean, edo izan daitekeenean, eta fabrikatzaileak badakienean produktu hori hirugarren kontsumitzaile batek erabiliko duela, "kontu bereziarekin" egin beharko du produktu hori, bestelakoan ondorioei aurre egin beharko dielako.

Cardozok mintzaira elokuenta zuen, eta argudio burutsuak eskaintzen zituen. Aipaturiko kasuak Zuzenbide mundua astindu zuen. Jendea kasu gehiago aurkeztera animatu zen, eta batzuek lortu egin zuten beren xedea. Gutxi gorabehera belaunaldi bat igaro ondoren, Auzitegi estatal gehienek onartu egin zuten berrikuntza. Baina ez litzateke zuzena izango gainerako auzitegiek Cardozori *jarraitu* ziotela esatea. Egia da Cardozo aipatzen zutela, baina besterik da bere iritzia konbentzitu egiten ote zituen. Konbentzitzen baldin bazituen, bere elokuentziagatik baino gehiago, pentsaera berri bati bidea zabaldu izanagatik izan zen. XX. mendea produktuengatik erantzukizuna onartze-ra bideratuta zegoen; alegia, fabrikatzaileak azken kontsumitzaileen aurrean erantzutera behartuko ziren. Azken urteotan, Cardozok imaginatu ere egiten ez zuen muturretara eraman dute auzitegiek produktuengatik erantzukizuna. Negligentziaren irizpidearen ordean, erantzukizun osoaren irizpidea erabiltzen da: egoera onean ez dagoen produkturen batek inori kalteak eraginez gero, konpainiak ordaindu egin beharko du. Kasu dramatikoko gutxi batzuetan, kalteordainak milioiunak izatera iritsi dira.

Akats medikuen kasuan ere antzeko zerbait gertatu da. Auzi gehienak sendagileen aurka zuzentzen dira, baina dentistek, erizainek eta ospitaleek ere gorriak ikusten dituzte, eta, duela denbora gutxitik, baita abokatuak, kontulariak, irakasleak eta predikatzaileak ere. XIX. mendean zehar, eta XX. mendearen hasieran, apenas izaten zen honelako kasurik. 70eko hamarkadan, oso kalteordain handiak ordaintzera behartzen zuten kasu gutxi baina garrantzitsuen ondorioz, aseguru primak sortzen hasi ziren, sendagileen amorrurako. Estatu batzuek diru kopuruaren muga bat ezarri zieten kalteordainei. Estatistikei begiratuz gero, esan daiteke horrelako kasuak ez zirela oso ohikoak izaten, baina langile guztiek mehatxu serio bat bezala ikusten zituztela.

Bistan da epaileak izan zirela Kalteordainen Zuzenbidearen aldaketaren bultzatzaile nagusiak. Legelarien iritzian, auzitegiak izugarritzko lana egin zuten XX. mendean

20. 217 N.Y. 382, 111 N.E. 1050 (1916).

zehar Zuzenbidea berregiten. Egia da parte hartu zutela, baina zenbateraino? Ez da exageratu behar. Auzitegiak lanpetuegi eta aktiboegi ibili ziren XX. mendean. Kasu dramatikoa batzuetan –*Brown v. Board of Education* izan zen horietako bat– beren azterna utzi zuten nazio mailako auzietan. Arau zaharrak aldatu eta berriak sortu zituzten. Baina mugatuta zeukaten boterea. Auzitegiek oso asmo handizaleekin eman zioten ongietorria mende berriari, eta maiz jarrera kontserbazionista hartu zuten. 30eko hamarkadan, Auzitegi Gorenak beto eskubidea egikaritzean, ezin izan ziren *New Deal*-ek Zuzenbidearen arloan gauzatu nahi zituen hainbat helburu bete. Hori ikusita, Franklin Rooseveltek Auzitegia handitu egingo zuela iragarri zuen, ziur aski *New Deal*-en jarraitzaile izango ziren epaile berriak izendatuz. Rooseveltek fama ona zeukan arren, plan honek ez zuen aurrera egin. Bertan behera gelditu zen Auzitegia handitzeko asmoa.

Rooseveltek zeukan azken hitza. Lautan atera zen hautatua. Egiten zuen gauza bakarra, “bederatziz gizon zaharrak” baino gehiago bizitzea besterik ez zen. Izendapen berrien eta beste bigarren asmo batzuen ondorioz, Auzitegia egoera arrazionalago batera igaro zen. Jada ez zion kalterik eragiten pentsaera liberalari, ez behintzat 1985 inguruan. Izan ere, Earl Warrenen agintaritzapean, 50 eta 60ko hamarkadetan, gauzak aldatu egin ziren. Kontserbadoreei zegokien kezuka hastea.

Auzitegi Gorenak 30eko hamarkadaren bukaeran abdikatu ostean, ez zegoen inolako oztopo *judizialik* Gobernu zentralak bere boterea nahi adina handitzeko, eta ongizatearen eta gobernuaren negozioen araudia zabaltzeko. Botere legegileak eta exekutiboak zeukaten ahalmen ekonomikorik handiena. Alexander Bickel-en esanetan, botere judiziala zen “arrisku gutxien sortzen zuen esparrua”. Garrantzirik gutxienez zena ere ote? Zuzenbide pribatua araez betetzen hasi zen. Eskualdea arautzen zuten legediak Kongresu eta parlamentuetatik atera, eta presidentearen edo gobernadorearen bulegoetan prestatzen ziren, edota beren ordezkari nahiz agenteek egiten zuten burokraziaren erdian. Agentzia administratibo piloek sortzen zituzten arauak ere oso Zuzenbide iturri garrantzitsuak ziren. Adibide gisa, Zuzenbide fiskala dugu. 1913an, 16. emendakina *Pollock* kasuko kaltea konpondu ostean, Kongresuak errentaren gaineko zergaren araudi berri bat onartu zuen. Kongresuak, urtetan, behin eta berriro igo zituen zergak, araudiko aurreikuspenak igoera haletara egokituz. 1950ean, Errenten Kodea zen –errentaren gaineko zergari buruzkoak ziren arau gehienak– eskualde osoko arudirik luze, konplexu eta astunena, eta, ziurrenik, beste edozein araudik baino jende eta negozio gehiagori eragiten ziena –eta abokatu eta kontulari gehienei lan ematen ziena–. Zuzenbide fiskalak bilioika dolar mugitzen zituen urtero. Hain zuzen ere horixe zen horrelako Gobernu handi batek behar zuen erregaia, eta, beraz, ez zen harritzekoa araudi fiskalari hainbeste arreta eskaintzea. Ogasun Publikoari buruzko erregulazio, arau eta aginduek araudia argitu eta osatzen zuten. Auzitegietak kasuek Zuzenbide fiskalaren politikaren hirugarren iturria osatzen zuten.

Teorian, jende guztiari eragiten zioten XX. mendeko ongizate arauak. Aldaketarik handienak Franklin D. Roosevelt presidente izandako urteetan eman ziren. Langabeziagatik konpentsazioak, subentzioak, aterpe publikoak, zaharrentzako aseguruak, haurrak zeuzkaten familientzako laguntzak... Neurri hauek guztiak 30eko hamarkadan sortu ziren, edota errotik aztertu eta erreformatu. Depresioak milioika pertsona eraman zituen pobrezia, eta milioika pertsona hauek ziren negozioen hegemonian zeukaten fedea galdu, eta Gobernuari miseriatik atera zitzala eskatzen ziotenak. Atsekabe horretan murgilduta zegoen jendea ez zen ahazteko moduko azpitalde txiki bat, ikaragarritzko jendetza baizik, horietako asko klase ertainetik erori berriak. Alderdi Demokratikoak gotorleku politiko bat sortu zuen, eta 30eko hamarkadaz geroztiko administrazio berri guztiak *New Deal*-ak aseguru sozialean egindakoaren muina ez ukitzera behartuta sentitu zen. Ohitura bihurtu zen gizarte segurantzaren ordainketak handitzea. 60ko hamarkadan, Medicare-k handitu egin zituen hezkuntzarako fondo federalak, eta Aukera Ekonomikoen Akta ongizatearen familia handian sartu zen.

Baina ezin da esan legedi sozialaren eta ongizate administrazioaren arloetan guztia arrosa kolorekoa zenik. 1939tik aurrera, klase ertainak lortutako arrakasta ondorio kaltegarriak izaten hasi zen programa batzuetan, batik bat AFDCren eta gero eta jende behartsuagoak erabiltzen zituzten aterpe publikoen kasuetan. Bat-batean, goitik behera eroritako klase ertainari zuzendutako programa bihurtu ziren. Klase ertaina, beltzak eta behartsuak sartu ahala, handitzen zihoan. Eta horrek gauza garrantzitsu bat galtzea suposatzen zuen: fama politikoa. Behartsuen Zuzenbidearen itzala programa hauetatik desagertzen hasi zen. Baldintza onerosoek zuhurtu eta eskastu egin zituzten, eta politi-

karien neurri murriztaileen biktima bihurtu ziren, eta, trukean, onuradunen arteko defekzioa handitu zen. Programak prest zeuden 60ko hamarkadako errebolta eta kontraerreboltei aurre egiteko. 70eko amaieran eta 80ko hasieran, zalantza eta kezka finantzieroak ongizate estatuko *klase ertainaren muinean* zehar hedatzen hasi ziren, hau da, gizarte segurantza zuten pentsionisten artean. Kritikari gehienek ustez, krisi baten ateetan zeuden, baina ez zegoen garbi nola konpon zitekeen. Hauteskundeak joan eta hauteskundeak etorri, eta ez zitzaion zezenari adarretatik heltzen. Muzin egiten zitzairen zailtasunei eta erabaki gogorrei.

Auzitegiak eta abokatu elkargoa (Bench and Bar)

1930eko hamarkadan atzerakada eman zen arren, Estatu Batuetako Auzitegi Gorenak sekula ez zuen XX. mendearen erdialdean bezainbesteko ospe eta botererik izan. Arlo ekonomikoan oihartzun handia baldin bazuen, are handiagoa zuen arrazen segregazioa, heriotza zigorra, babes penala, antisorgailuak eta abortua bezalako gai "sozialetan". Bere erabakiak lehen orrialdeetako albiste izaten ziren. 1979an, *best-seller*-en zerrendan lehendabiziko izatera iritsi zen Auzitegiaren sekretutasunaren atea zabaldu eta guztia kontatuko zuela ziurtatzen zuen liburu bat²¹.

Auzitegi hau ezohikoa zen, noski. Auzitegi federalek gero eta funtzio eta lan gehiago zeukaten. Auzitegi eta epaile estatalek, berriz, XX. mendean boterea mantentzeko –eta handitzeko– aukera izan zuten arren, galtzen atera ziren Gobernuaren adar zentralen aurrean. Egia esan, auzitegi estataletako epaile gutxiak lortu dute ospea. Benjamin Cardozo (1870-1938), New Yorkeko epailea, salbuespen bitxi bat izan zen –Cardozo Estatu Batuetako Auzitegi Gorenean ere aritu zen lanean, 1932tik aurrera–. 50 eta 60ko hamarkadetan, Roger Traynor kaliforniarra zen, beharbada, auzitegi estataletako epailearik ospetsuena. Gutxi izango ziren abokatu ez izanik ezagutzen zutenak. Geroago, arrazoi batengatik zein besteagatik, epaileak ezagun bihurtu ziren; hala nola Rose Bird, Kaliforniako epaile polemikoa. Baina auzitegi estataletako epaile gehienak itzalean gelditzen ziren.

Cardozo eta Traynor epaileak

Cardozo eta Traynorren arteko desberdintasunak, neurri batean, oso esanguratsuak ziren. Belaunaldi desberdinetakoak ziren. Biak epaile berritzaileak izateagatik ziren ezagun. Baina Cardozok *common law*-ri eutsiz egiten zituen aldaketak, jarraitasunari eustea gustatzen zitzaiolako, *common law*-ren espiritua gordeaz. Buztinlari tradizional bat bezala zen azaltzen zuen bere burua. Traynorrek, aldiz, nahiago zuen iraganarekin eten. Hizkera desberdin eta frankoago bat erabiltzen zuen.

Bi epaile hauek filosofia berbera zeukaten hezkuntza legalari eta Zuzenbidearen alderdi intelektualari buruz. Ideia multzo honek *errealismo legala* izana zuen. Korrante hau 30eko hamarkadako idazle talde batekin lotzen da azkenaldian, batik bat Jerome Frank eta Karl Llewellyn-ekin. Errealismoa, filosofia bat baino gehiago, jarrera bat zen. Ez zituen onartzen XIX. mende bukaerako epaile eta adituek zeukaten pentsamolde estua, eta ezta ere logika legala eta kontzeptuen purutasuna; hau da, ez zuen Langdell-en filosofia onartzen. Errealistek ez zuten oso gogoko tradizio legala. Epaile eta idazle errealistak erabat instrumentalak ziren. Zera galdetzen zuten: zertarako balio du doktrina edo arau honek? Zitazio sorta luze bat ez zen erantzun egokia, iraganeko epaile nobleak aipatzea ere ez zen erantzun nahikoa, ezta ere norbaiten liburu edo doktrina aipatzea, edo aurreko kasuetatik logikoki jarraitzen diren ondorioak ere. Gero eta gutxiago toleratzen ziren artifizialtasuna, fikzioa eta irrazionaltasuna. Zuzenbideak tresna sozial eraginkor bat izan behar zuen, eta perspektiba horretatik *begiratu* behar zen.

Jarrera hori ez zen guztiz berria. Ez zituen epaile eta abokatu guztiak bereganatu, baina elite garrantzitsu bat bai. Errealismoak epaile talde txiki baina garrantzitsuen baten idazkeran eragin zuen, eta, beharbada –hau baieztatzea arriskutsuagoa den arren– baita beren jokabide eta erabakietan ere. Beren kasuetan gehiagotan aipatzen zuten "politika publikoa" (*public policy*), eta modu esplizituago batean gainera. Aurreko mendetik hona, kasuei ordura arte emandako epaien aurkakoak emateko gogoia sartu zaie epaileei. Ameriketara beti egon da kasuei aurreko kasuei emandako

21. Bob Woodward eta Scott Armstrong, *The Brethren: Inside the Supreme Court* (1979).



epaiaren aurkakoa emateko aukera, baina oso gutxitan gertatzen zen horrelakorik. Earl Warrenen auzitegian, epidemia positibo bat bailitzan zabaldu zen kontrako epaia emateko joera. Auzitegi Gorenetakoa epaile modernoak beren aurretik zeuden epaileak baino gehiago ebazten hasi ziren aurkako zentzuan, eta iritzi konkurrente baina desberdin gehiago idazten. Michiganen, 1870eko hamarkadan, Auzitegietakoa kasuen %95 inguruk ahobatasuna sortzen zuten, eta 1960ko hamarkadan, kasuen %44ren inguruan sortzen zen aurkakotasuna²².

Joera hau Estatu Batuetako Auzitegi Gorenean da nagusi. Mendearen lehen hereneko "disidente nagusiak" Oliver Wendell Holmes eta Louis Brandeis izan ziren. Garai hartan, disidente izatea ez zen gerora izango zen bezain normala. 1950eko hamarkadaren bukaeran ezohikoa zen erabaki batek ahobatasuna sortzea, behintzat auzi garrantzitsuetan. Eskolen segregazioaren kasuaren inguruan, adibidez, ahobatasuna zegoen, eta horrek Warrenen egoera horien aurrean zeukan diplomazia gorena adierazten zuen. Auzitegi Gorenaren baitan sarritan izaten dira iritzi desberdinak, eta kasu batzuetan magistratuek hiru, lau, bost edo botu partikular gehiago ematen dituzte. Zientzialari politikoez, Auzitegian zeuden ildoak eta magistratuek zeuzkaten jarrerak aztertzeari ekin zioten.

XX. mendean, auzitegiek eta abokatuaren elkargoek estatus profesionala handitzearen aurrerapenak egiten jarraitu zuten –aurrerapen deituerik baldin badago behintzat–. Estatu gehienetan, epaile laikoek –eta baita bake epaile laikoek ere– *heath her*²³ eta *Carolina parakee*²⁴-ek izandako zori berbera izan zuten. Ziurtasuna lortzearen, epaileak aukeratzen jarraitzen zen. Alderdi horretatik, herritarren zerbitzari baino gehiago, politikariak ziren. Baina epaileen hautaketak ohiko zeregin bat zirudien, hautesleek berrespen hutsa. Epaileek gehienetan izendapenaren bidez eskuratzen zuten epaile postua, epaile zahar bat hil edo erretiraterakoan. Urte batzuk lanean eman ondoren, epaile berriek birraukeraketa prozesu bat pasa behar zuten, baina benetako aurkaririk izan gabe. Oso epaile gutxi ateratzen ziren galtzaile, eta oso gutxi izaten zuten prozesua ez gainditzeko arriskua.

Missouriko planak (1940), hautaketa mota honekin bukatzea proposatu zuen, eta abokatuaren elkargo lokalak aukeratutako abokatuak, epaile batek eta gobernatzaileak aukeratutako lego edo ez-profesionalek (leymen) osatutako talde bati esleitu zion epaileak hautatzeko erantzukizuna. Talde honek hiru izen proposatu behar zituen, eta gobernatzaileak hiru horietako bat aukeratu behar zuen. Epaile horrek urte bete emango zuen orduan epailetzan, eta orduan birraukeraketa prozesu batean sartuko zen, baina aurkaririk izan gabe. Zaila denez aurkaririk izan gabe galtzaile irtetea, epaile hori irabazle aterako zen (Rose Bird-ek, 1970eko hamarkadaren bukaeran izendatu zen Kaliforniako epaile polemikoak, justu-justu gainditu zuen bere postutik kentzeko izan zen saio bat). 1960ko hamarkadan, hainbat Estatu jarraitu zioten Missouri-ren bideari. Lehenxeago, 1940an, ABAk (*American Bar Association*) epaile federalen hautaketa prozesuan parte hartze handiagoa izatea eskatu zuen, eta zerbait behintzat lortu zuen. Gaur egun ABA batzordeei beren iritzia eskatu ohi zaie, proposatu den epailearen bat kualifikatua den edo ez adieraz dezan. Bere irizpena ez da loteslea, baina badu eraginik epaileak aukeratzekoan.

1908an, *American Bar Association*-ek etika profesionalari buruzko kode bat onartu zuen, eta Estatu gehienek kode hau bera edo antzekoren bat onartu zuten abokatuaren jarrera arautzeko. Mendearen erdialdean, abokatuaren elkargoak "sortu" ziren hainbat Estatutan, eta, ondorioz, Estatu horietako abokatu guztiek abokatuaren elkargoren bateko kide bihurtu behar zuten. Elkargo hauek kuota bat eskatzen zuten eta, teoriarik behintzat, beren kideak zigortzeko ahalmena zeukaten. 1960rako, Estatuaren erdiak baino gehiagok eratu zituzten abokatuaren elkargoak. Joera horrek jarraitu egin zuen –Illinois-ek, esaterako, 1970eko hamarkadan eratu zuen bere Abokatu Elkargoa–. Hala ere, *American Medical Association*-ekin alderatuz gero –ospitaleak kontrolatzeaz arduratzen zen elkar-tea–, lanbide juridikoa askea eta liberala zela esan beharra dago. Abokatuaren erdia baino gehiago ez zitzaion bere Estatuko elkargoari atxiki ere egin. Eta elkargoa ahobatasunez mintzatzen saiatzen bazen ere, ia inoiz ez zuen gizartearen arreta erakartzen.

22. Lawrence M. Friedman et al., "State Supreme Courts: A Century of Style and Citation", 33 Stan. L. Rev. 773, 790 (1981). Michiganekoa izan zen aztertutako hamasei Auzitegi Gorenetakoa bat. Izugarriko desberdintasunak zeuden Estatu batetik bestera –epailekideen arteko ezadostasun botoen tasak jaitzi egin ziren Virginian 1870 eta 1970 artean; 60ko hamarkadan, Mendebaldeko Virginiako auzitegietakoa kasuen %98 baino gehiagoren inguruan ahobatasuna zegoen–; baina ahobatasunik sortzen ez zuten erabakien kopurua bikoiztu egin zen mendeak aurrera egin ahala.

23. *Typanuchus cupido cupido*, New England-go eper beltza, etengabeko ehizatagatik desagertutako espeziea (itultzailearen oharra).

24. *Conuropsis carolinensis*, psitazidoen familiko hegaztia, 1918an desagertu zena (itultzailearen oharra).

Batzuek esango dute hortxe amaitzen dela elkargoaren alderdi positibo guztia. Egin duen lana, bere publizitatearekin alderatuta, atzerakoia eta ahula izan da. Justizia edo askatasun zibila krisian zeuden kasu batzuetan, elkargoak ez du zintzo jokatu. Mende hasieran arrazista zen –ABAK ez zuen bere baitan beltzik onartzen–, eta McCarthy-ren garaian, leialtasuna aldarrikatu eta purgatzeko desiatzen zegoen²⁵. Bere “etika”, gehienetan, publizitatea salatzea eta abokatuak lehiaketaren aurrean babestera mugatu da. Azken belaunaldiarekin, elkargoak pixka bat aldatu egin du bere jokabidea. Gertakari guztien aurrean zentru politikorantz jo du. Auzitegi Gorenak bultzada bat eman zion publizitatearen debekua bertan behera utzi zuenean. Gaur egun abokatuak telebistan ikus ditzakegu, gidari mozkorren aferei buruz hizketan, eta “klinika” legalak oilasko erreak saltzen dituzten postuak bailiran ari dira zabaltzen. Wall Street-eko abokatu zaharrek burua altxako balute!

Baina Wall Street bera ere izugarri aldatu da. Garai batean, enpresa handiek hogeitabak abokatu izaten zituzten, eta, belaunaldi bat geroago, ehun ere izan zitzaizkiren. *Baker and McKenzie* enpresak bostehun abokatu baino gehiago zeuzkan 1980ko hamarkadan. Megaenpresek, sasiak bailiran ugaltzen joan ahala, adarkatzearen abantailak deskubritu zituzten. Bigarren Mundu Gerraren aurretik, apenas existitzen zen fenomeno hori. Duela gutxira arte, oso bufete gutxi izan dituzte adarrak Riyadh edo Arabia Saudi bezalako herrialde urrunetan –baliteke Washington DCn enpresa batek edo bik bulego txorik izatea itsasoaz bestalde, baina, gaur egun, nahiko normala da enpresek adarrak izatea; bost edo sei adar dauzkatenak eta guzti daude–, edo gertu-gertuko suburbiorik asaldatuenean.

Zuzenbide
fakultateen
jarrera

Gaur egun, Zuzenbide fakultateek monopolio birtual bat daukate Abokatuen elkar-gora sartzeko²⁶. Zuzenbide fakultate gehiago daude Medikuntza fakultateak baino –1980an berrehun Zuzenbide fakultate inguru zeuden; ia Estatu guztietan zegoen bat–, Bigarren Mundu Gerraren ostean gutxi batzuk itxi egin baziren ere, Hawaii eta Vermontekoak esaterako. Zuzenbide fakultateak ez ziren Medikuntza fakultateak bezain garesti eta kontrolatuak, eta ezta hain ugariak ere. Mendearen lehen erdian, gehienbat Langdell metodoa eta jurisprudenzia kontzeptuala erabiltzen ziren lege hezkuntzan. 1930 nahiz 1950 inguruan, eskualde guztian zehar zeuden fakultate txiki eta behartsuak –batzuek gau eskolak ziruditen–, beren helburu eta irizpide propioak izan beharrean, modu tamalgarri batean Harvard imitatzen saiatzen ziren, hango metodo eta liburuak erabiliz. 1960 eta 70eko hamarkadetan, fakultateetan sartzeko eskariek gora erruz egin zutela ikusita, fakultateak selektiboago bihurtzea komeni zela ikusi zen. Fakultaterik ospetsuenak ikasleak baztertzen hasi ziren, eta, beste fakultate batzuk, ikasle horiek berenganatzen saiatzen. Izugarri handitu zen abokatu bilakatu nahi zuten emakumeen kopurua: 1960an, fakultate batzuetan, %1 inguru baldin baziren, 1980an laurden, heren bat eta, batzuetan, erdia izatera iritsi ziren.

Urte horietan bertan, literaturan ere nagusitu egin ziren Langdell eta kontzeptualismoa. Tratatu handien garaia zen. Samuel Williston-ek sekulako obra idatzi zuen (1920-22), *Contracts*, hainbat alez osatua, solidoa, trinkoa, eta nozio etiko, ekonomiko eta sozialen intrusioaren aurka erabat blindatuta²⁷. 1920an, mugimendu errealista legalak erronkari baiezkoa ematea eta nagusi zen eskolaren aurkari bihurtzea erabaki zuen. Karl Llewellyn eta Jerome Frank, besteak beste, kontzeptuen jurisprudenziaren aurka borrokatu ziren. Tratatu errealistak eta guzti egin ziren, hala nola Arthur Corbin-en *Contracts*, Yale Unibertsitateko arrapostua Harvard Unibertsitateko agureari. Korrante errealistak kurrikulatan ere izan zuen eraginik: Zuzenbide Administratiboa eta Zerga Zuzenbidea irakasgaien artean sartu ziren, eta, korrante berriaren eraginez, irakasgai zaharren edukia aldatzeko saioak egin ziren. Oro har, hala ere, Zuzenbide fakultateetako kurrikulek modu sinestezin batean eutsi diote bereari mugimendu transformatzaile erradikalen aurrean. Fakultate batzuek irakasgai “aberasgarri” batzuk txertatu dituzte; beste batzuek, berriz, irakaskuntza klinikoa moldatu dute. Onerako edo txarrerako, fakultateek bereari eusten jarraitzen dutela dirudi. Kurrikulumak benetan gogor eta zurruna dela erakutsi du.

Noizean behin, Zuzenbidea mundu intelektualerantz bideratzeko mugimenduak sortu dira. 1920 eta 30eko hamarkadetan, Zuzenbidea eta gizarte zientziak integratzeko

25. Jerold S. Auerbach, *Unequal Justice: Lawyers and Social Change in Modern America* (1976).

26. Ikus, orokorrean, Robert B. Stevens, *Law School: Legal Education in America from the 1850s to the 1980s* (1983).

27. Williston 1861ean jaio eta 1963an hil zen, 101 urte zituela.

eta kurrrikula erreformatzeko saioak egin ziren Columbian –Johns Hopkins-en eskutik– eta Yale-n, baina huts egin zuten. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, beste ahalegin serioago batzuk egin ziren. Azkenean, Gobernu eta fundazioak dirua pixkanaka Zuzenbide fakultateetara bideratzen hasi ziren. 1950eko hamarkadan Chicagoko Unibertsitatean egindako azterketa enpiriko batek aditzera ematen zuen posiblea zela Zuzenbidean aditu zirenen eta gizarte zientzietan aditu zirenen arteko lankidetzaz. Zuzenbide- eta Gizarte Zientzia promesa bat besterik ez zen, baina behintzat dagoeneko ez zen hain hutsal eta irreal. Fakultate gutxi batzuetan –Wisconsin eta Berkeleyn batez ere–, ideia hori ez zen hitzetan agortu. 1960ko hamarkadan, Zuzenbide ikasketetan kabi- da handiagoa eman zitzaion arlo sozialari (Zuzenbidea eta probrezia, eta Atzerriko Zuzenbidea modu sakonago batean aztertzen hasi ziren). Gizarte zientziak apenas izan zuen eraginik, arlo ekonomikoan salbu. Chicagon izan zuen indarrik handiena, gerora epaile federal izango zen Richard Posner izanik figura nagusia. Fakultate “juridiko eta ekonomikoak” kritika ugari jaso zituen, eskuin aldekoa eta estuegia zela leporatzen zitzaiolako, baina 1980rako, ordea, leku garrantzitsu bat lortu zuen Zuzenbidearen irakaskuntzan, pentsamenduan eta ikerketan.

Kalitatea alde batera utzita, liburu asko argitaratzen ziren. 1980rako izugarri ugalduta ziren XIX. mendean zeuden aldizkari juridiko unibertsitario apurrak; ehun eta berrogeita hamar inguru izango ziren. Ia Zuzenbide fakultate guztiek, edozein mailakoak izanik, argitaratzen zuten beren aldizkari propioa. Nola edo hala, milaka orrialde hitzez betetzea lortzen zuten. Fakultaterik ospetsuenek ahulek baino ale gehiago kaleratzen zituzten urtean, eta aleak mardultzen hasi zirenean, bi aldizkari edo gehiago argitaratzen hasi ziren. Tradizioari helduz, fakultateko ikaslerik onenak izaten ziren aldizkariak prestatzeaz arduratzen zirenak, notarik onenak ateratzen zituztenak, ikasketak amaitutakoan bufeterik onenetara joaten ziren horietakoak (Fakultate batzuek, 1960ko egalitarismo korronteari jarraiki, ikasle guztiei zabaldu zieten aldizkari juridikoetan parte hartzeko aukera, beren emaitza akademikoari erreparatu gabe). Ezohikoa eta ausarta izan zen 1930ean Duke Unibertsitatea *Law and Contemporary Problems* izeneko aldizkari bat argitaratzen hasia. Aldizkari bakoitza, gai topikoren baten inguruko monografikoa izaten zen. Ez zegoen ikasleek aztertzeko balio ez zuen gairik. Geroago, aldizkari espezializatuak agertzen hasi ziren, *American Journal of Legal History* adibidez. *The Law & Society Review*-ren lehen alea 1966an argitaratu zen.

Aldizkari
juridiko
unibertsitarioen
gorakada

Kontzeptualismoak oro har ondorio kaltegarriak izan zituen arren, literatura legala inoiz ez zen XX. mendean bezain oparoa izan. Onddoak aztertzeari utzi eta Zuzenbidea aztertzea pasa zen Roscoe Pound (1870-1964) nebraskarrak, bere bizitza luzean zehar, esparru ugariara zuzendu zuen bere energia kreatibo aberatsa; irregularki batzuetan, baina modu probokatzailan betiere. Charles Warren-ek Zuzenbide amerikarraren iraganari buruzko azterlan batzuk idatzi zituen bi Mundu Gerren artean. Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan, Zuzenbidearen historia itzalpetik atera, eta figura handi bat agertu zen: Willard Hurst, Wisconsinetarra. Hurst eta bere jarraitzaileek –Wisconsin eskola deiturikoak– Zuzenbidearen eta ekonomiaren arteko harremana aztertu zuten gehienbat. 1970eko hamarkadan, historialari gazte erradikal batzuek zalantzatan jarri zuten Hurst eskolaren ekarpena, baina, erreakzio hori, eskola horren eraginaren ondorio izan zen. Beste diziplinetako adituak Zuzenbidea ikuspegi berri eta argigarri batetik behatzen hasi ziren. Aditu hauetako gehienak –ez guztiak– Zuzenbidearen mundutik kanpokoak ziren.

1960ko hamarkadaren bukaeran, dar-dar bolkaniko batzuk Zuzenbide fakultateetako bakea aztoratzen hasi ziren. Ikasleak ziren mugimendu hauen gidari: eskubide eta askatasun zibilen aldeko esloganen eramaten zituzten, pobrezia aurkakoak, erradikalismo orokorraren eta errebutzioaren aldekoak. Fakultate aberats eta ezagunenak izan ziren kaltetuenak, eta, ikasleei dagokienez, intelektualki aktiboak zirenak izan ziren protesta ekintzetan gehien parte hartu zutenak. Ondorioak lanbide guztira zabaltzen hasi ziren. Aukera Ekonomikoen Bulegoa auzoetan bulego juridikoak zabaltzeko dirua eskaintzen hasi zenean, abokatu gazteak gogo biziz hasi ziren ghettoetan lan egiten. Wall Streetek, bere ospea gal ez zezan, prezioak igo beharra izan zuen. Antza, gauzak aurrerantzean ez ziren berdinak izango. Hezkuntza juridiko klasikoak hormaren aurka zihoan *Humpty Dumpty*²⁸ bat zirudien. Zer gertatuko zen: errebotatu egingo zuen, ala hautsi egingo zen?

28. Lewis Carroll-en *Alizia Bitxikerien lurraldean* liburuko untxi agintaria (itzultzailearen oharra).

Zuzenbidearen ozeano zabala, amaierarik gabeko putzua, krisian murgilduta zegoela zirudien, gizartea bera bezala. Sostengatzen zuten kolomak okertzen hasiak ziren. Denek ahobatez onartzen zuten, adibidez, justizia kriminala guztiz ustelduta zegoela: ezkerak opresibo eta injustua zela zioen, eta eskuinak lanerako malaguegia zela. 1970eko hamarkadaren bukaeran, batzuen ustez hedatuegia zegoen ongizate estatua, eta hori arriskutsua iruditzen zitzaien. Bien bitartean, jende guztia (ezkertiarak, eskuinarrak zein zentrukoak) kezu zen litigazioen ezteandaren aurrean –mitikoegia, akaso–. Gizartea bere hondakinen artean itoko zela zirudien.

Ikasleen mugimendua 1970ean iritsi zen bere puntu gorenera, eta 1980tik aurrera ez zuen beste gatazkarik sortu. Egoera nahiko bare zegoela zirudien. Aitzinako egien egarri zen. Azken hamarkadetako presidenteetan kontserbadoreenak (Ronald Reaganek) gozotasunez egiten zuen irribarre Etxe Zurian eta telebista kateetan. Zuzenbide fakultate askotako irakasleak kezu agertzen ziren, ikasleak aspergarriak, adeitsuak eta bokazionalak zirela esanez. Mugimendu erradikal berriak sortu ziren irakasleen artean, baina ikasleak –eta abokatu elkargoa– apenas mugitzen ziren. Jendeak protesta egiten zuen, lege gehiegi zeudela esanez, baina, neurri batean, beraiek izan ziren munstro hori sortu zutenak –munstro bat baitzen azken batean–.

Jendeak, baina, galderak egiten zituen: zein da honen guztiaren helburua? Nolako etorkizuna izango du lege sistema korapilotsu honek? Izan ere, argi dago etorkizunen bat izango duela. Zuzenbidea gizartea kontrolatzeko sistema bat baldin bada, edozein neurri eta konplexutasuneko gizartek du orduan horrelako sistema bat, edo bat baino gehiago. Eskualde bat existitzen den heinean, lege sistema bat izango du, bertako gizartearen asmo eta beharrak, irrazionaltasunak, anbiguotasunak eta inkonsistentzia islatuko dituena. Garapenaren bira eta bidezidor guztietatik joko du. Justiziaren helburuak eta botere egarria jasoko ditu, gizartearen egituraren azpian dauden ezberdintasun sakonak. Zeren eta Zuzenbidea, azken batean, bizitzaren ispilua da. Ordena, justizia, beldurra, segurtasun eza, hutsaltasuna da. Jendea elkarrekin eta elkarren aurka batu, antolatu eta ahalegintzearen ondorioa da. Hori ez da aldatuko. Zuzenbide amerikarraren historia, amerikarren historia osoa izango litzateke; ez gehiago, eta ez gutxiago. Bataren geroa, bestearen geroa da. Instituzio amerikarrak gizarte oparo, eraginkor eta egoki bati erantzuteko gai baldin badira, orduan gizarte hori zuzena izango da. Sistemaren etorkizuna, historiak erantzuna emateko daukan gaitasunaren arabera izango da.